



Urdulizko Jose Laradogoitia **Gernika** agente bikoitzak espioi nazien aurka jardun zuen II. Mundu Gerran ▶22

Aurtengo Emakumeen Mundu Martxa Kurdistanen hasiko da. Kurduen berri izateko, Julia Iglesias Newroz elkarteak kideagaz egin dugu berba ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



7. zenbakia

2015eko
martxoaren 5etik
martxoaren 11ra arte

«Sarririk dioen moduan, orain dantza da gure barrikada»



Ines Osinaga Gose taldearen abeslariak **Gosariak** diskoaren nondik norakoak kontatu dizkigu ▶16

HERRIZ HERRI LEIOA

Biologian EAEko onena

Nerea Diaz Ros Leioako Irlan desas ikastetxeko Batxilergoko ikasleak irabazi du EAEko Biologia Olinpiada. ▶7

MARTXOAREN 8A URIBE KOSTAN

Bat barik, egunero



Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldi ugari antolatu dituzte eskualde osoan. Uribe Kostako eragile feminista asko eta emakume elkarteak herriz herri ibiliko dira, ia martxo osoan, parekidetasuna hedatzeko helburuagaz.

KULTURA ERANDIO

Korrikaren berri Erandion

Euskararen aldeko lasterketa aurkeztuko dute hilaren 6an Astrabuduan. Aurretik musika eta jolasak egongo dira. ▶11

Emakumeak batuko dira parekidetasuna bultzatzeko

Martxoaren 8aren harira, astebeteko egitaraua prestatu dute Getxoko Udalak eta udalerriko emakume taldeek.

Urtero legez, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldi ugari egingo dituzte Getxon. Egun horren inguruan, Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak eta herriko hainbat eragile feministak ia astebeteko egitaraua prestatu dute.

Lehenengo hitzordua martxoaren 6an izango da, barikuan. Egun horretan Bilboko Guggenheim museora joateko bisita gidatua antolatu dute: Niki de Saint Phalle artista feministaren erakusketa ikusteko alde aurretik izena eman beharko da. Hurrengo egunean, hilak 7, *Las Lisytratas* antzezlanaren egongo da ikusgai Areetako Andres Isasi musika eskolan, 19:00etan, hiru euroren truke. Martxoaren 8an, bi hitzordu egingo dituzte, bata Algortan eta bestea Itzurbaltzeta/Romon. Lehenengoan, Bilgune Feminista, Ernai, Haziak eta Mujeres con Voz talde feministek 11:00etan hasiko dute eguna San Nikolas enparantzan. Bertan zaintzaren inguruan eztabaidatuko dute; ondoren, 12:30ean txokolateagaz ez-erriak berotuko dituzte eta 13:00ak



Martxoaren 8an manifestazioa eta kontzentrazioa egingo dute Algortan eta Romon, hurrenez hurren.

aldera manifestazioa abiatuko dute San Nikolas enparantzatik, Algortako kaleetan parekidetasuna aldarrikatzeko. Ordu berean, Itzurbaltzeta emakumeon asanbladak kontzentrazioa deitu du Areetako Xake plazan. Martxoaren 9an, astelehena, berriz, «Berdintasuna hazi eta hezi» izeneko mahai-ingurua egingo dute Algortako Villamonte kultur etxean, 18:30ean. Hurrengo egunean, martitzenean, «Trilogia del Baztan. Las sombras de la maternidad» hitzaldia egingo dute Josune Muñoz literatura kritikariagaz. Hitzordua 19:00etan jarri dute, Villa-

monte kultur etxean. Azkenik, egunean, hilak 12, *Emakumeak kontatzen* ipuin-kontaketa egingo dute euskaraz, Apikagaz. Interesatuak 18:00etan hurbildu beharko dute Villamonte kultur etxera.

Aurten, gainera, Udalak hezkidetzaren areago zabaldu gura du, ikastetxe batzuek batera, haien esperientzietan aurkitzen dituzten eragozpenak eta erronkak azaltzeko. Udalaren iritziz, hezkuntzan «emakumeen eta gizonen berdintasunerantz» aurrerapen handiak egin diren arren, oraindino «bide luzea» dago egiteko. ◀

Egitaraua

Martxoak 6, barikua

17:00
Bisita gidatua Niki de Saint Phalle artista feministaren Guggenheimeko erakusketara. Leku mugatuak. Izen-ematea, Berdintasun Zerbitzuan. Sarrera: 8 euro.

Martxoak 7, zapatua

17:00
Las Lisytratas antzezlanaren, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera: 3 euro.

Martxoak 8, domeka

11:00
Bilgune Feminista, Haziak eta Mujeres con Voz taldeen topaketak San Nikolas enparantzan: zaintza gaiaren inguruko eztabaida.

12:30
Txokolate-jana, San Nikolas enparantzan.

13:00
Manifestazioa, San Nikolas enparantzatik.

13:00
Kontzentrazioa, Areetako Xake plazan.

Martxoak 9, astelehena

18:30
«Berdintasuna ean hazi eta hezi», Algortako Villamonte kultur etxean.

Martxoak 10, martitzena

19:00
«Trilogia del Baztan. Sombras de la maternidad» inguruko hitzaldia Algortako Villamonte kultur etxean.

Martxoak 12, eguna

18:00
Emakumeak kontatzen ipuin-kontaketa, Algortako Villamonte kultur etxean.

Negoiazioak aurrera doaz, greba mugagabearen itzalpean

Garbiketa eta zabor bilketarako zerbitzuaren enpresa esleipendunak, Cespa eta Asaserrek osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteak (ABEE), sindikatuakaz negoziatzen jarraitzen du. Lan-hitzarmena negoziatu eta akordio batera heldu ezean, langileek greba mugagabea abiatuko dute martxoaren 9an. Otsailaren 24an eta martxoaren 3an, garbitzaileek mobilizazioak egin zituzten. Dirudienez, joan den azaroan Udalgaz hitzartutako kontratu berriagaz Cespa-Asaserrek diru-sarrera txikiagoak ditu, aurreko kontzesioa baino %40 gutxiago. Lehen 2 milioi euro kobratzen zituen hilerok. Hau da, diru gutxiago zerbitzu gehiago eskaintzeagatik. Horren



aurrean, enpresak kaleratzeak abiatu zituen, gaueko garbitze-zerbitzua bertan behera utzi zuen, eta, beraz, langileei gaueko lanaren plusa kendu. Sindikatuak salatu dute orain ez direla kale-garbiketaren eta zabor-bilketaren oinarriak betetzen. ◀

Lehiakortasun turistikoaren eredu dira Getxoko enpresak

Getxoko 31 enpresak lehiakortasun turistikoagaz eta sektorearen berrikuntzagaz lotutako programen ziurtagiria lortu dute. Guztira, 691 euskal enpresak lortu dute ziurtagiri hori, lehiakorrak izateko egindako ahalgintza eta Euskadi jomuga berri-tzaileagoa eta kalitate handiagokoa egitateagatik.

Otsailaren 25ean Eusko Jaurlaritzak Gasteizen egindako ekitaldian, Getxoko enpresen ordezkariak eta Ignacio Uriarte Turismo zinegotziak SICTED Kalitate Turistikoaren Sistemagaz duten konpromisoaren diploma jaso zuten.


Horrez gainera, hamar enpresa nabarmendu zituzten «Informazioa-

ren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzerakoan jardunbide egokiak» ezartzeko egindako ahalgintzagatik. Turismo arloko enpresetan, teknologia berriak apurka-apurka ezartzeko oztopoak ezabatzen laguntzea du helburu jardunbide egokiak ezartzearen ekimen horrek.

Joan den urtean, Turismo Bulegoa teknologia berrien inguruko programa hori ezartzen hasi zen, esperientzia pilotua izan zen. Lortu zituzten emaitzak ikusita, eta enpresen artean harrera ona izan duela kontuan hartuta, 2015ean programan parte hartzeko enpresa-kopurua bikoiztu dute: 20 izango dira guztira. ◀

Getxon sinesten dugu

Bat eginda gure hiriaren garapenaren alde.



SabadellGuipuzcoano Banco de Sabadell, S.A.ren marka erregistratua da.



Politikaren Basoa

KOLDO
ITURBE MENDILABAR
EAlren bozeramailea

Zergatik nago/gagoz politikan?

Ez deusuet ezer errebelatuko neure bizimodua politika dala aitortzen badeusuet. Hala da, eta orain urte batzuk erabaki neban neure beharra, zer demontre, neure bozkazioa politika zala.

Neure herria maite dot, aberrialea naz eta geure hizkuntzen alkarbizitza (amaren euskara eta aitaren gaztelera) hobetzeko sartu nintzan politikan. Irakasle bikaina euki neban, ez zan izan neure alderdiko agintari ospeitsu horretariko bat, nire amaren aita baino, bera izan zan; benetakoa gudaria, euskalduna, baina batez bere, pertsona arteza. Berarengandik ikasi nebazan neure ibilbidean darabildazan printzipio nagusiak, hauek: alde bategatik, «mundu honetan pertsonak egin behar dauan azkenengo gauza gezurretan ibiltea dala», eta bestetik, eta inportanteena «beti bere, pertsonak garala, eta bizitza dagoala edozein eskubideren gainetik».

Daborduko gauza asko ikusi dodaz politikan, besteak beste: gezurrak, alperrak, sinesten ez diran baloreak defendatzea, giza eskubideen urraketen aurrean isiltasuna, errespetu faltak, eta abar. Ostera, oraindino bere, ogibide honetan eta bertan dabilzenengan konfiantza daukat. Izan bere, inguruan hainbat ikusi dodazalako, euren familien kalterako, orduak emoten herriarentzat, arrazoi garbi batengatik, eta hori berori da: euren herria maite dabelako.

Artalde guztien antzera, ardi baltzak dagoz, familia guztietan legez senide lotsagarriak daukaguz; baina horrek ez dau esan gura familia osoa, artalde guztia, ustelduta dagoanik.

Errebindikatu egin gura dot profesino honen duintasuna eta bertan gabilzanon konpromisoa. Kementsu aldarrikatu gura dot, aitaren moduan, pertsona artezak politikan bere bagagozala, barkatu: badagozala. ◀

Getxo

Gobela egokituz doa

Ibaiaren egokitzapen hidraulikoa lortzeko lanetan, 25 milioi euro baino gehiago inbertituko dituzte. Lanok 6 urte inguru iraungo dute.

Gobela ibaiaren ibilgua moldatze aldera Fadura inguruan egiteko lanak onartu ditu behin betiko Getxoko Udalbatzak. URAk eramango du proiektua aurrera, obrak 12 hilabeteko iraupena izango dute, eta 4.477.398 euro (BEZ barne) bideratuko dituzte.

Lanok urte akabuan abiatuko dituzte, Uribe Kosta (Fadura kiroldegia- ren ondoan) eta Salsidu zubien arteko tartean. Hala, ibilguaren ingurua hondeatuko eta hustuko dute, alboan plataforma paraleloa sortzeko. Horren helburua ibaiaren edukiera handitzea da, urek kontrolpeko gune horretan gainezka egin dezaten. Horretarako, Fadurako zubia bota beharko dute, Iñigo Ansola URAREN zuzendariak azaldu duenez.

Pasa den otsailaren 18an Getxoko Udalak antolatutako Uraldietako Informazio Batzorde Berezian parte hartu zuen URAk. Horretan, Fadurako tartean hobetze hidraulikoa lortzeko ekintzen proiektua behin-behinean onartu zuten; egiteko horiek Gobela ibaiaren egokitzapen hidraulikoa zein ingurumen-lehengoratzea gauzatzeko egitasmoaren baitan aurreikusita zeu-



Errekaganekeo tartean 2. faseari ekingo diote laster.

den. Getxoko Udalbatzak, 2012ko martxoan, eta Eusko Jaurlaritzak, 2012ko maiatzean, Fadurako zubia moldatzeko lanak berehala hasteko eskatu zioten URARI. Hala ere, urte bi joan ziren URA horren inguruan mintzatu arte: lanak 2015eko lehenengo hiruhilekoan hasiko zirela esan zuen; hala ere, urte bukaerara arte atzeratu dituzte eginkizunak.

Lanak Gobela ibaian

URAK azaldu duenez, Errekaganekeo tartean (Cristobal Valdesekeo hустubidetik La Avanzadako zubiraino) Gobela ibaiaren egokitzapenerako 1. fasean egindako lanak eraginkorrak direla erakutsi dute. URAk jakinarazi du tarte horretako 2. faseko lanak

hastear direla, La Avanzadako zubitik Leioa etorbidera arteko eremuan. Horrez gainera, lanon kronograma aurkeztu du.

Getxon Gobela ibaiaren hobekuntza hidraulikoa lortzeko egindako inbertsio osoa 25 milioi eurotik gorakoa dela azaldu du URAk. Uholdeei aurre egiteko proiektu horretan, 3 kilometrotik gorako eremuan lan egin dute, hau da, Gobela ibaiak udalerrian duen ibilguaren %65ean.

Lan horien guztien iraupena 6 urtez luzatuko dira, eta 6 zubi eta oinezkoentzako pasabide bi ordezkatu dituzte guztira. Halaber, euri jasadietan, ibaiak kontrolpean gainezka egiteko 53.000 metro koadroko uholde lautada sortuko dute. ◀

Hassana Aaliaren asilo politikoa babestu du Udalak

Hassana Aalia sahararren asilo- Heskera babesteko mozioa aurkeztu zuen otsaileko udalbatzarrean EH Bilduk. Horretan, Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa bertan behera utz dezan exijitu eta Mendebaldeko Saharan autodeterminazio erreferenduma egin dezaten eskatu zen. Okupatutako El Aaiun-eko Duintasunaren kanpaldi baketsuan parte hartu zuen Aaliak 2010ean, milaka lagunegaz batera, giza eskubideak aldarrikatzeko. Hurrengo urtean, 27 urteko gaztea gurera etorri zen ikastera, eta orduan jaso zuen Marokoko bilatze eta atxilotzeko agindua, protesta horretan parte hartzeagatik. Gaztea ez



zen bertaratu eta auzi-ihesean epaitu zuten; tribunal militar batek biziarteko espetxe-zigorra ezarri zion. Urta- rriaren 19an, Espainiako Barne Ministerioak ez zion onartu eskatutako asilo politikoa. Hortaz, laster Marokora joan beharko luke zigorra betetzera. ◀

Unibertsoari buruzko tailerra antolatu du Bizarra Lepoanek

Aeroespazio eskolagaz batera, 7 eta 12 urte arteko umeentzako ordu biko ikastaroa antolatu du martxoaren 28rako Bizarra Lepoan elkarteak. Aipatutako jarduera Gobela kiroldegian izango da, 11:00etatik 14:00etara. Tailer horretan zientzia eta teknologia arloak landuko dituzte. Zientziaren alorrean espazioa berbabide hartu eta unibertsoaren inguruan jardungo dute neska-mutiek. Ikastaroan parte hartu gura duten bazkideek martxoaren 9an, 10ean edo 11n eman beharko dute izena; gainontzekoek, ostera, hilaren 11n, 12an eta 13an izango dute horretarako tarteak. ◀

Harremanetarako: 667 540 242
info@bizarralepoan.org

Erando

Aste feminista abiatu dute



Aldarrikapena eta ospakizunak tartekatuko dira Erandioko feministen egitarauan.

Herenegun, martitzena, abiatu zuten Erandion Emakumeen Nazioarteko Egurenaren harira antolatutako astea. Aurtengo uztailen 25 urte beteko dituen Erandioko emakumeen elkarte soziokulturalak batzar orokorra egin zuen, hurrengo egunean bazkideen bazkaria egin aurretik. Halere, astelehenera arte izango da aldarrikapen zein ospakizunerako tartea.

Hala, parekidetasuna bultzatzeko deialdi nagusia hilaren 9an izango da, elkarretaratzea eta martxa egingo baitituzte. Elkarlanean jardungo dute Erandio zein Astrabuduko emakume elkarteek eta Erandioko Udalaren Enplegu, Ekonomia, Sustapen, Tokiko Garapen eta Berdintasun Sailak. Erandioko Txoko Feministak, berriz, bat egin du Bizkaiko Emakumeen Asanbladak domekarako Bilbon deitutako manifestazioagaz. ◀

Egitaraua

Martxoak 5, eguna

10:00

Bisitaldia Lamiakoko Vicrila museo eta lantegira, Erandioko metro geltokitik, Erandioko Emakumeen Elkarteak deituta

19:00

Plataforma Tiranteren *DesEncadenArte* antzezlan, azoka zaharrean

Martxoak 6, barikua

18:00

Jaialdia, elkarteari buruzko proiektzioa, lunch-a eta opari-zozketa, azoka zaharrean, Erandioko emakumeen elkarteak antolatuta

Martxoak 8, domeka

13:00

Manifestazioa, Bilboko Arriaga plazatik, Erandioko Txoko feministak ere deituta

Martxoak 9, astelehena

12:00

Elkarretaratzea eta martxa Astrabudura, Udaletxeko plazatik, Erandio eta Astrabuduko emakumeen elkarteek deituta

Bidegorria gura dute itsasadar alboan

Erandioko Udalbatzak Itsasadarreko errepidea egokitzeko eskatu dio Bilboko Portu Agintaritzari, autoen artean ibili beharrean, txirindulariak segurtasunez igaro ahal izateko. Mozioa Aiala Egiluz bozeramaile popularrak aurkeztu zuen otsailaren 26ko osoko bilkuran eta beste talde denek babestu zuten.

Udalbatzaren erabakian jasotzen denez, Portu Agintaritzak Ibaizabalen paraleloan doan errepideari buruzko azterketa egin beharko luke, bera baita jabea. Ikerketa horretan jaso beharko lirake balizko hobekuntzak, tar-

tean Bilbo eta Getxo arteko ibilbidean bidegorria sortzea, edo, bestela, seinalizazioak gehitzea, beti ere txirindularien eta korrikalarien segurtasuna helburu. Egiluzek azaldu duenez, «gero eta ohikoagoa da txirindulariak eta *runner*-ak» bertatik igarotzea. Horregatik, kirolariak bakarrik erabili ahal izango duten erraila sortzea eskatu du Erandioko Udalbatzak. Uribe Kostako egungo bidegorri sareagaz lotuko litzateke Areetan. Errepideak trafiko handiko urteak izan ditu, baina gaur egun «erabateko gainbeheran dago», Alderdi Popularraren ustez. ◀

Erando Busaren zerbitzua hobetzeko zenbait proposamen egin dituzte sozialistek

Pasa den otsailaren zan, Erandio Busaren edo E-busaren bi lineak bateratu zituen Udalak, eta daborduko lehenengo keak heldu dira. PSE-EEko udal taldeak hiru proposamen egin ditu, orain arteko zerbitzua hobetzeko asmoz.

Zehazki, honako neurriak hartzea eskatu dute sozialistek: Erandiogoi-koan zenbait geraleku aldatzea; markesinak jartzea, batez ere auzo berean egurats gorrian dauden geralekue-tan; maiztasunak aldatzea, «askotan Bizkaibusek ematen duen hiriarteko zerbitzuagaz bat egiten duelako»; eta



Auzo txikiak herriguneagaz lotzen ditu E-busak.

salneurriak aldatzea, garraio publiko bako auzoetako biztanleek gehiago ordain ez dezaten. Geralekuen aldaketari dagokionez, E-busa Erandiogoi-koko osasun-etxearen zein kultur etxearen ondoan gelditzea gura dute. ◀

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarte Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Leioa



Leioaztarrek Boulevarden aldarrikatu ohi dituzte emakumeen eskubideak.

Emakume kirolariei gorazarre egingo diete

Martxoaren 8aren inguruan askotariko egitaraua antolatu dute Udalak eta Andrak emakumeen elkarteak.

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna denez, Udalak egitaraua antolatu du, hainbat sail elkarlanean jarritz. Leioako emakume kirolariei omenaldia egin gura diete aurten. Horretarako, domekan ekitaldia egingo dute 11:00etan Sakoneta kiroldegian. Hilaren 10ean, ostera, eskalada-lehiaketa egingo dute IV. Climb-Girl Party-ren barruan. Hi-

tzordua 17:00etan jarri dute Sakonetako boulderrean. Bitartean, Andrak emakumeen elkarteak ohiko jarduerak prestatu ditu: bolo txapelketa Artea Bowling-en (hilaren 4an egin zuten), Kafe Huts taldearen antzezlan eta bazkaria.

Emakumeen Eguneko kontzentrazioa 12:00etan egingo dute Boulevarden. Leioako Bilgune Feministari dagokionez, Algortako ekitaldietara

deitu du: goizeko 11:00etan hasiko dira San Nikolas plazan, Bilgune Feminista, Ahotsik Gabeko Emakumeak eta Haziak erakundeek deituta. Manifestazioa 13:00etan egingo dute.

Emakume leioaztarrek kirolean betetzen duten zeregina azpimarratu gura izan du aurten Udalak. «Asko dira udalerrian dauden kirol elkarteak eta emakumezkoak ere protagonista dira horietan», azaldu dute agintariak. Emakume horiei guztiei, eta beren lanari, omenaldia egin gura izan zaie ondoko leloa daukan kanpainagaz: *Kirolean ere Leioako emakumeak ha-*

rra eta trebe; udalerriko paneletan egongo da ikusgai. Gainera, kanpainari entzutea emateko *#LeioakoEmakumeak* traola sortu dute, leioaztarrek sare sozialen bitartez ere bat egin dezaten Emakumeen Egunagaz.

Ekitaldiei dagokionez, bertan behera geratu da O Sister! taldeak hilaren 13an eman behar zuen kontzertua, kideetako baten osasun-arazoak direla eta; azaroaren 13an egingo dute. Sarrera gorde gura dutenei kontzertu berriarena salmentan jartzean trukatu dute; bestela, dirua bueltatuko zaie Kultur Leioako txarteldegian. ◀

Egitaraua

Martxoak 5, eguna

19:00

Kafe Huts taldearen *Por decir algo* antzezlan, Kultur Leioan. Gonbidapenak: Kafe Huts (Lamiako ikastetxea), Andrak eta Gizarte Zerbitzuak.

Martxoak 6, barikua

14:00

Bazkaria (25 euro). Autobusak ltxasbide geltokian. Izen-ematea: Andrak elkartearen egoitzan (Sabino Arana, 78)

19:00-21:00

Zer diote kanten hitzek? tailerra. Ele bitan.

Martxoak 8, domeka

11:00

Emakume kirolariei omenaldia, Sakonetan.

12:00

Elkarretaratzea, Boulevarden.

Martxoak 10, martitena

17:00

Emakumeen eskalada-sariketa, Sakonetan.

Martxoaren 15era arte

Egun osoan zehar

Berdintasunaren gaiagaz lotutako liburuen erakusketa, Kultur Leioan.

Campuserako tranbia eraikitze «gaitasun eta interes falta» leporatu dizkio PSE-EEk Udalari



Lamiakoko kotxetegiak hutsik daude oraindino.

Eusko Jaurlaritzak orain gutxi baieztatu du Metroa eta campusa lotu behar zituen tranbiaren proiektuak geldirik jarraituko duela. Lakuatik adierazi dutenez, aurrekonturik eta garapen teknikorik ez dago. Lamiakoko kotxetegiak eraikitze lanak 2012an amaitu ziren, 4,2 milioi euro inbertitu ostean, eta orduetik ez dute besterik egin. Hala, Leioako PSE-EEk aipatutako egitasmoa bultzatzeko «gaitasun eza eta interes falta» izatea egotzi dio EAJ eta Ezker Batuaren Udal Gobernuari. Juan Carlos Martinez alkategai sozialistaren arabera, tranbiak jartzea «berbiziko garran-

tzia» dauka udalerriko erdigunetik urrunago dauden auzoetako batzuk komunikatzeko, eta Leioa eta Erandio-ko campusa metroagaz lotzeko.

Martinez berbetan, «Patxi Lopezek zuzendutako Eusko Jaurlaritzak baino ez zuen garraio-azpiegitura hori garatzeko benetako interesa erakutsi», kotxetegiak altxatzea ahalbidetuz. «Urkullu Ajuria Eneara heldu denetik, ostera, ez dute adreilurik jarri», PSEkoak gaineratu duenez. Campusera bitartean, 3,8 kilometroko ibilbidea eta 9 geltoki eraikitzea aurreikusita zegoen; aurrekontua 30 milioi euro ingurukoa zen. ◀

Leioa

«Irabaztea ez da beti garrantzitsuena izaten»

Nerea Diaz Ros Leioako Irlandesas ikastetxeko Batxilergoko ikasleak irabazi du EAEko Biologia Olinpiada. Martxoaren 12tik aurrera, Leonen jokatu du Espainiako sariketa.



Batxilergoko bigarren mailako ikaslea da Nerea Diaz Ros.

Garaipena lortzen badu, primeran. Alabaina, irabaztera baino, leku berriak eta interres berdinak dauzkaten pertsonak ezagutzeko asmoz joango da Leonera Nerea Diaz Ros leioztarra. Saria lortu ala ez, egundoko esperientzia izaten dira halako topaketak.

Biologiako Olinpiadan EAEko txapel-duna izatea espero al zenuen?

Ba, egia esan, ez. Oso ondo ez nuela egin pentsatuz atera nintzen azterketa teorikotik. Atal praktikoari dagokionez, azken hori bai, apurtxo bat

hobeto egin nuen. Hori uste nuen behintzat, eta, azkenean, irabazi.

Ezusteko ederra hartuko zenuen irabazlea zinela jakindakoan?

Ezusteko ikaragarria izan zen sailkatzea, eta, are gehiago, fase autonomikoa irabaztea. Ezin nuen sinetsi!

Ze atal dituzte horrelako probek? Zelako ariketak jartzen dizkizute?

Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako Biologia ikasgaia oinarri hartuta, test moduko 50 galderari erantzun behar izan genien, urtarilaren

23ko proba teorikoan. Behin hori gaindututa, otsailaren 13ko proba praktikoan, informatika-ariketa bat egitea egokitu zitzaidan: datu-baseetan bilatze-lanak egitea. Azterketa praktikoaren bigarren zatian, ostera, giza mihinaren ehunak behatu behar izan nituen mikroskopioarekin, eta horiek zeintzuk ziren identifikatu.

Olinpiadara joateko modu bereziren batean prestatu behar izan zenuen?

Egia esan, ez nuen prestakuntza-lan berezirik egin. Agian, proba praktikorako txartela eskuan neukala jakin-

dakoan... Orduan, bai. Datu-baseak eta horrelakoak lantzen ibili nintzen. Baina, ez nuen ezer berezirik egin. Jakin badakit, ikastetxe batzuetan ordu asko ematen dituztena horrelako olinpiadak prestatzen. Gurean, behintzat, ez da horrela izaten.

Irlandesas ikastetxeko Enrique Acha Isasi izan zen hirugarrena.

Bai, nire ikaskidea da Enrique.

Emaitzotan zerikusirik izango dute zuen irakasleek, ezta?

Hain zuzen ere, orain lau urtetik hona ematen dizkigu eskolak oraingo Biologia irakasleak. Oso ondo egiten du bere lana. Iaz, hain zuzen, Geologia eskolak eman zizkigun, eta neuk irabazi nuen geologiako olinpiadako fase autonomikoa.

Martxoaren 12tik 16ra arteko Espainiako Olinpiada irabazteko gai zarela uste duzu?

Ur handiak dira, ezbairik gabe. Batek daki. Iaz Geologiako Espainia mailako fasean parte hartzeko aukera eduki nuen, eta, Leonekoa, hura bezala, beste maila batean dagoela uste dut. Horra, orduak eta orduak prestatzen dabiltzan ikasleak doaz. Baina, irabazi ala ez, esperientzia paregabea izaten da. Hori da benetan axola zaidana, irabaztea baino gehiago. Daborduko Euskadiko lehenengoa izatea ez da gauza makala.

Lehian parte hartzeaz gain, horrelako txapelketek jendea ezagutzeko aukera ematen dute?

Nire ustez, hori da garrantzitsuena. Iaz, zorionez, Toledora joatea suertatu zitzaidan. Bertan, interes berdinak dauzkagun lagun ugari batu ginen. Ni bezala, Geologia eta Biologia gustuko zituzten. Oraindik harremana badaukat Toledon ezagututako hainbat pertsonarekin. Irabaztea baino, ematen dizkizun aukerak da garrantzitsuena, zalantza barik. ◀

TABERNA
Ekin
JATETXEA
CALLE BOLLUE Nº4 TEL: 946080462

TABERNA
Unai
JATETXEA
XLGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

DIDAK
hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana
- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
Ingalaterran egonaldiak
Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

Hurtzaindegitik batxilergora
arteko eskaintza
Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.net
www.anderdeunaikastola.net

ander deuna
I K A S T O L A

Sopela

Udalbatzak ez ditu onartu «premiazkoak» diren hainbat proiektu

Udal Gobernuak 639.607 euroko aurrekontu-moldaketa aurkeztu zuen otsaileko udalbatzara, «beharrezkoak» diren proiektuak onartzeko asmoz, baina oposizioak ez du onartu.



Urko futbol-zelaiaren belarra hobetzeko 4.000 euro aurreikusten ziren

Sopelako Udalbatzaren gehien-goak ez zuen onartu otsailaren 24ko bilkuran Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontu-moldaketa. EH Bilduren gobernuaren proposamenen udalbatzarentzat «beharrezkoak eta premiazkoak» diren hainbat proiektu jasotzen ziren, baina oposizioak kontra bozkatu zuen. Herriko agintarien proposamenak EH Bilduren aldeko zazpi botoak baino ez zituen jaso; EAJko zazpi zinegotziek eta PSE-EEko zinegotzi biek kontra bozkatu zuten, eta PPko zinegotzi bakarrak abstentziora jo zuen.

Abenduan 2015eko kontuak onartu ez zirenez, Udal Gobernuak aurreko urteko aurrekontuak luzatu behar izan zituen. Udalaren arabera, herriak hainbat behar berri ditu aurten, eta ia azken aurrekontuetan behar horiek diru-sail nahikorik ez zuten, Udal Gobernuak aurrekontu-moldaketa bat aurkeztu zuen otsaileko udalbatzara, gastu horiei finantziarioa esleitzeko. Aurrekontu-moldaketaren diru-kopuru osoa 639.607 eurokoa zen, eta honako proiektuak jasotzen zituen: 155.352 euro umeen jolas-parkeetarako, 125.000 euro irisgarritasuna hobetzeko, 89.000 euro Artatzako saneamendu-biltzailea konpontzeko, 77.000 euro energia-eraginkortasuna hobetzeko, 30.000 euro kaleko argiteria berrizteko, 19.505 euro hondakin-bilketarako, eta abar.

Udal Gobernuarentzat, proiektuak atzera bota izana oposizioaren «arduragarria» da: «Gastu guztiak premiazkoak eta beharrezkoak ziren, eta ezezkoa eman diete inolako alternatibarik aurkeztu barik. Gainera, ogasuneko batzordean ez zuten ezer esan. Oposizioaren jarrera adar-jotze hutsa da». Salatu dutenez, aurrekontuak egin zuten legez, oposizioko alderdiek ez diete inolako proposamenik aurkeztu: «Euren helburu bakarra Udala blokeatzen saiatzea da. EH Bilduk abiatutako aldaketa gelditu gura dute». Hala ere, ekarpenei zabalik jarraitzen dutela nabarmendu dute herriko agintariak: «Ezezkoaren ostean ere eskatu diegu euren proposamenak ahalik eta lasterren bidaltzeko, akordioa lortu gura dugulako».

Bestelakoa da oposizioaren bertsioa. EAJk negoziatzeko borondate-falta leporatu dio Sopelako Udalari: «Ez digute deitu negoziatzeko. Gehien-go absoluturik ez daukazunean logikoena negoziazio bat hastea da». Proiektuei dagokionez, EAJk azpimarratu du ez zegoela ados proiektu-sorta guztiagaz: «Proiektu batzuek ados geunden, baina guztiak ez. Eta proiektu guztiak onartu behar genituen». PSE-EEK, ostera, arduragarria Udal Gobernuari egotzi dio: «Ez dute negoziatzeko asmorik. Udal Gobernuaren borondate-faltak Udala geldiaraziko du». ◀

Gontzal Hermosilla izango da Sopelako EAJren alkategaia

Sopelan alkatetza berreskuratzeko asmoz, EAJk Gontzal Hermosilla alkategaia aurkeztuko du maiatzeko udal hauteskundeetarako. Hermosilla 35 urte ditu, Administrazioan eta Enpresen Zuzendaritzan lizentziaduna da eta gaur egun zinegotzia eta EAJko bozeramailea da Sopelako Udalan. «Herritarren parte-hartzea bultzatzea izango da gure helburuetako bat». ◀



Hermosilla zinegotzia da gaur egun

Nerabezaroa aztertzeke tailerra hilaren 11n eta 12an

Nerabezaroaren inguruko tailerra antolatu dute Uribe Kostako Mankomunitateak eta Sopelako Udalak martxoaren 11n eta 12an. Ikastaroa gurasoentzat izango da, eta bertan nerabezaroak gordetzen dituen «sekretuen» inguruko argibideak emango dituzte.

Nerabeak dituzten familiak, edo, oro har, gaiarekiko interesa duen edo-

zein herritar gertura daiteke ikastaroa. Tailerra martxoaren 11n eta 12an egingo da, 18:00etatik 20:00ak arte, Kurtzio kultur etxean. Ikastaroan parte hartzeko martxoaren 6a baino lehen izena ematea beharrezkoa izango da, oinarriko datuak adierazita. Tailerra gai honetan adituak diren teknikariek eskainiko dute, gaztelaniaz. ◀

Info+: www.uribekosta.org

Emakumeen Asteko azken txanpa martxoaren 5etik 8ra

Oraindino ez da Sopelako Emakumeen Astea amaitu! Egitaraua martxoaren 2an hasi zen arren, aste akabu honetan badago zertaz gozatu Sopelan. Eguenean Itzartuk bere egunik handiena ospatuko du, urtero antolatzen dituen lehiaketen sari-banaketaren bidez. Horren ostean, mokadutxo bat jateko aukera egongo da.

Barikuan aukera bi izango ditugu ordu berean. Kurtzio kultur etxean Haizea Lopez idazle sopoloztarrak bere azken lana aurkeztuko du; eta Itzarturen egoitzan, berriz, Adela Buenok Goyaren lanak aztertuko ditu, emakumeen protagonismoa berabagaita. Zapatuan, Itzartu elkartekoek tradizio bihurtu den bazkaria egingo dute Artxandan. Eta domekan, Emakumeen Astea guztiz biribiltzeko, lehen mailako ikuskizuna egongo da Kurtzion: Arriaga Antzokiak ekoiztutako *Casa de muñecas* antzezlan. Henrik Ibsen egilearen lan horrek hautsak harrotu zituen XIX. mendean, emakumeen askatasuna aldarrikatzen duelako. ◀

Egitaraua

Martxoak 5, eguna

18:00 Ekitaldia: Itzarturen lehiaketen sari-banaketa: pintura, lpuin laburrak eta olerkiak. Martxoaren 8ko adierazpena irakurtzea, eta amaitzeko, lunch-a. Kurtzio kultur etxean.

Martxoak 6, barikua

18:30 Haizea Lopez idazle sopoloztarrak *El veneno de Jan e Ryan* bere azken eleberria aurkeztuko du, Kurtzio kultur etxean.

18:30 Berbaldia: *Emakumeak Goyaren lanetan*, Adela Bueno adituarekin, Itzarturen egoitzan.

Martxoak 7, zapatua

15:00 Itzartu elkarteen emakumeen bazkaria, Artxandan. Autobusa 14:00etan irtengo da Urbaso tabernatik, aldeztu aurretik izena ematea beharrezkoa da.

Martxoak 8, domeka

19:00 Antzerkia: *Casa de Muñecas*. Arriaga Antzokian ekoiztutako lan horrek Ibsen en klasikoa gaurkotzen du, emakumeen protagonismoa gaur egungo gizarteaz aztertuz. Kurtzio kultur etxean. Sarrera: hiru euro (ohiko lekuetan salgai).

Gorliz



Uyuniko gatz-lautada bisitatu dute, besteak beste. CANELA ETA CANELON

«Mundua uste dugun baino seguruagoa da»

Ekador, Peru, Bolivia, Argentina, Uruguai, Txile, Zeelanda Berria, Fiji, Indonnesia, Singapur, Tailandia, Laos eta Kanbodia. Gorliztar biek orain dela zortzi hilabete ekin zioten bidaiari, eta oraindik ere ez dute bueltatzeko datarik zehaztu.

Canela eta Canelon goitizenez ezagunak diren Ziortzak eta Carlosek zortzi hilabete daroztate munduan zehar bidaiatzen. Gorliz alde batera utzita, herrialde eta leku ugari bisitatzeko aukera izan dute; azkenekoa, Laoseko Sayaboury elefanteen jaialdia.

Zelan otu zitzaizuen horrelako bidaia bat abiatzea?

Zortzi hilabete daramatzagu etxetik urrun, eta egun gutxi barru Japoniara goaz, Tokion bi hilabetez *guesthouse* batean lan egitera, ohea eta gosaria-

ren truke. Betidanik izan dugu buruan horrelako bidaia bat egitea, baina ez genuen momentu egokirik topatzen. Aurretiaz ere bidaiak egin ditugu, hala nola Nepal, Namibia, Europa, Vietnam, Laos eta AEBetan zehar. Hala ere, egun batean, gure lagun baten mezua jaso genuen, Ekuadorren ezkonduko zela esanez. Gonbidatu gintuen, eta hara joateko hegaldiak bilatzen geundela, bata besteari begiratu eta zera esan genuen: «joan eta etorria atera beharrean, zergatik ez joaneko bidaia bakarrik?» Eta hala egin genuen, gehiegi pentsatu barik...

Horretarako, lana eta familia atzean utzi behar izan dituzue, gogorra izan zaizue?

Batzuetan bai, gogorra egiten da maite duzun jendea urrun izatea, batez ere egun berezietan: Gabonetan, urtebetetze egunetan... Baina gaur egun *Skype*, *WhatsApp*, *Viber* edo horrelako aplikazioak eramangarriagoa izaten da. Hala ere, ilobei besarkada handi bat emateko irrikan gaude!

Hamar herrialde baino gehiago bisitatu dituzue daborduko...

Bidaia Ekuadorren hasi genuen, lagu-

nen inka-ekontza zela eta. Ekuadorren ostean, Peru eta Bolivia bisitatu genituen. Azken horretan piraña bategen haginka egin zion Canelon giza-joari, eta Potosin dagoen Cerro Ricon ere sartu ginen bi orduz, meatzarien lan gogorra zuzenean ezagutzeko. Ondoren, Argentinara egin genuen salto; Buenos Airesetik Montevideora joan ginen ferry batean, eta bertan Podemoseko Pablo Iglesiagaz egin genuen topo, Mujikagaz hitz egitera omen zihoan. Azkenik, Txilera joan ginen. Bertan, Hego Amerikatik Zeelanda Berrira joan ginen, han furgoneta bat alokatu eta bi irlak zeharkatu genituen. Hurrengo parada Fiji izan zen... Paradisua! Ondoren Indonnesia, Singapur, Tailandia, Laos eta Kanbodia bisitatu ditugu. Une honetan azkeneko horretan gaude, baina esan bezala, laster Japoniara goaz.

Esperientzia aberasgarria izango da...

Oso aberasgarria. Ez da oporretan bezala; esperientzia honek zure ikuspuntua aldatzen du, bizitza ezberdin bat ikusten duzu. Beldurra galtzen duzu eta libreagoa sentitzen zara. Orain auzartagoak garela uste dugu.

Zerk harritu zaituzte gehien?

Alde batetik, gizakiaren egokitzeko ahalmenak, eta bestetik, mundua uste dugun baino askoz ere seguruagoa dela.

Noiz arte bidaiatuko duzue?

Ez dakigu, egunez egun goaz bidaia prestatzen. Hasieratik ez genuen bueltatzeko datarik zehaztu. Probatzera gindoazen, ez genekien hiru hilabete ala hamar iraungo genuen. Momentuz gustura gaude. Arazoa dirua da; beraz, bukatzean, akabo bidaia.

Zer behar da mota horretako bidaia bat egiteko?

Batez ere gogoa; baita dirua ere, noski. Hala ere, nahi izatekotan, ia gehienek egin dezakete. Gauza erabakitzea da. <

KONTXI
ZU AZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaitan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

PINTXO POTE
OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE
Portu
Zaharra
Bar

GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketari

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

SKATEPARK
UK
BERANGO Indoor
ukskateparkberango@gmail.com
664 226 700
Sabino Arana 60, 48640 - Berango - Bizkaia

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

guita izanez gero,
etsera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34



Gure esku

ZELAI
NIKOLAS EZKURDIA
Legelaria

Zer dago gure esku?
Den-dena

Esquetan daude gure hitzak ...bihotza esquetan, ...gure esku dago mundu bizi-bizi bat, ...mundu berri bat. Gure esku dago den-dena. Pirritx, Porrotx eta Marimotsek Jon Maiarekin batera abesten duten «Bizitza esquetan» kantaren pasarteak dira horiek denak. Hala da, bizitza gure esquetan izan nahi dugulako, Euskal Herrian hainbat herritar ari gara elkartzen Gure Esku Dago dinamikaren inguruan jarrera positibo eta eraikitzailearekin gure etorkizunari heltzeko asmoz; jakin badakigulako arazoak arazo guk egin beharrekoa ez dugula beste inoren esku utzi behar eta elkarrekin egin behar dugula.

Jarrera horri heldu zioten 60 eta 70eko hamarkadetan gure gurasoek. Orduan ez zegoen aldeko baldintzarik euskal herritarra izateko. Eta zain egon gabe, beren eskuekin, beren adorea-rekin, beren ilusioarekin... guretzat etorkizun hobe baten alde egin zuten lan. Eta lortu ere. Eta hori horrela izanda, zein da gure belaunaldiak egin nahi duena gure seme-alabak, gure lagunen eta bizikideen seme-alabak... hobeto bizi daitezten? Azken finean, gure ondorengoak harro egon daitezten guk izandako jarrerez, haiengan ereindako balioez eta guk egindako ibilbideaz eta hartutako erabakiez.

Sentimendu eta gogoeta horiek guztiak buruan eta bihotzean dantzaka ditudalako erabaki dut zutabe honi Gure Esku izena jartzea.

Hala bada, datozen hilabeteetan pentsatzeko eta zuekin partekatzen zer dagoen gure esku, Zer egin behar dugun den-dena gure esku egoteko. Horrekin batera badago beste alderdi bat gure etorkizunarekin oso lotuta dagoena eta hori gure jarre-rak dira. Nola jokatu behar dugu den-dena gure esku egon dadin?

Akaso, guk uste baino gehiago dago eta gure esku. ◀

Urduliz

Unbeko korridorearen segurtasuna areagotuz



Obra Unbe gain, Pozozabala eta Mendiondo artean egingo dituzte.

BI-2704 errepidearen segurtasuna hobetzeko behin-behineko plana onartu du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Unbeko korridoreko BI-2704 errepidean segurtasuna eta funtzionalitatea areagotzeko behin-behineko bide-plana onartu du Bizkaiko Foru Aldundiak, Unbe gain, Pozozabala eta Mendiondo artean. Proiektuari aurrez aurrerako ebatzita, proze-

durak aurrera egiteko beste urrats bat eman dute, proiektua behin-betiko onetsi baino lehenago. Lan horietarako aurreikusitako aurrekontua 30,9 milioi eurokoa da eta epea urte bi eta erdikoa izango da.

Obra horiekaz, BI-2704 errepidearen trazatua hobetuko da eta BI-634 errepideagaz lotzeko aukera egongo da, Mendiondo aldean. Gainera, sarbideak antolatu eta elkarguneak egokitu dituzte. Hori horrela, ondoko bide-tarteakaz homogeenagoa izango da eta errepidearen ikuspena eta bide-segurtasunaren baldintzak ere ho-

betuko direla jakinarazi du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Errepidearen azken biktima

Joan den otsailaren 19an BI-2704 errepide horretan motor gidari bat hil zen, Erandio aldean, Plentziarako noranzkoan. Gizonezko urduliztarrak motorraren kontrola galdu, errepidetik atera, Unbeko gainetik erori eta zauri larriak jasan zituen. Larrialdi-zerbitzuetako osasun-langileek, bertaratu zirenean, ezin izan zuten ezer egin, ordurako 42 urteko gizonezkoa zendu baitzen. ◀

Uribe Kosta

Eskualdea morez jantziko da hilabete honetan

Urtero legeaz, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekimen antolatu ditu Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Ospakizunak martxoaren 2an hasi ziren, Sopelan, eta jardunaldiak martxoaren 21era arte luzatuko dira. Tarte horretan, hamaika hitzaldi, tailer, bideo proiektzio eta solasaldi egongo dira eskualdean zehar. Martxoaren 8an egun berezia egingo dute Berangon, 10:30etik aurrera. Ordu horretan, Berangoko Emakumeen Elkarteak herri martxari emango dio hasiera; 13:15ean frontoian bukatuko da. Ordu laurden beranduago, martxoaren 8ko adie-



razpena irakurriko dute eta 13:45etik aurrera, batukada, kale antzerkia, umeentzako txapa-tailerra eta lunch-a. Egun berean, kontzentrazioa egingo dute Gorkizen 19:00etan, Motan. ◀

Dendek kaleak hartuko dituzte Getxon eta Sopelan

Martxoaren 5etik 7ra arteko aste Makabuan Getxoko eta Sopelako saltzaileek euren produktuak kalera aterako dituzte. Batetik, Getxon, ehun bat dendak parte hartuko dute «Getxo Market» egitasmo berrian. Bestetik, Sopelan, ez da lehenengo aldia merkaturatu egiten dutena, herriko Salerosle elkarteak antolatuta. Merkatu bietan parte hartzen duten dendek denboraldi amaierako produktuak salduko dituzte, prezio merkeagoan. Eurria eginez gero, Getxon denden barruan salduko dituzte gauzak; Sopelan, ostera, astebete atzeratuko litzateke kale-merkatua. ◀



Herriz herri ikusgai egongo den *Arconada* film laburreko irudia.

Egitaraua

Martxoak 12, eguena

19:00

Emakumeen elkartearen egoitza (San Agustin eliza ondoan)

Sarrera doan

Filmak

Zortzi film labur eskainiko dira, 2013an eta 2014an sortutakoak:

- *Hubert le Blon en azken hegaldia* (Koldo Almandoz)
- *Ein land* (Igone Arreitunan dia Berridi)
- *Aitona Mantangorria* (Kepa Errasti)
- *Zela Trovke* (Asier Altuna)
- *Arconada* (Asier Urbietta)
- *Don Miguel* (Kote Camacho)
- *Zaunk!* (Ixone Aroma, Aritz Lasarguren eta Asier Vera)
- *Zarautzen erosi zuen* (Aitor Arregi)

Saioaren iraupena

Ordu eta laurden inguru.

Info+: topagunea.eus/laburbira

Laburbira Erandiora

Euskaltzaleen Topagunearen ekimenez, euskarazko zortzi film labur ikusgai egongo dira hilaren 12an, eguena, Altzagan, emakumeen elkartearen egoitzan; sarrera doan.

Euskaltzaleen Topaguneak Laburbira film laburren zirkuituaren hamabigarren edizioa martxan dauka, herriko euskara elkarteakaz elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko zein Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien babesagaz. Martxoaren 28ra arte, 27 herritan izango da. Ohi den legez, Erandion ere egongo da euskarazko film laburrez gozatzeko

aukera. Berbots Erandion Euskaraz elkarteak hilaren 12rako, eguena, jarri du hitzordua 19:00etan bertoko emakumeen elkartearen egoitzan, Altzagan San Agustin eliza ondoan.

Euskarazko ikus-entzunezko produkzioa ezagutarazteko eta herrietako kultur eskaintza aberasteko helburua daukan zirkuitua da Laburbira, Topaguneak azaldu duenez. Saio bakoitzean, zortzi ikus-entzunezko la-

bur eskainiko dira, 2013an eta 2014an sortutakoak. Ordu eta laurdenero emanaldietan, sormena, dokumentala, fikzioa zein animazioa batzen dituzten ikus-entzunezkoak proiektatuko dira. Lan gehienak Durangoko Azokako Irudienea gunean egon ziren ikusgai pasa den abenduan.

Film laburren zuzendariari dago kienez, ibilbide luzeko egileen eta sortzaile berrien lanak ezagutarazteko ahalegina egiten du Laburbirak.

Hamabi urte

Daborduko hamabigarren edizioa du Laburbirak. Urte luze hauetan, ehun-

ka emanaldi egon dira Euskal Herriko hamaika txokotan, baita Euskal Herri-kanpo ere. Topagunearen arabera, ibilbide oparoa izan da, eta sortzaile eta ikusleen arteko iritzi-trukea oso aberasgarria dela erakutsi du.

Horregatik, egileak eta ikusleak elkarrengana hurbiltzeko asmoz, emanaldi batzuetan berbaldia egingo da zuzendariagaz. Izan ere, sortzaileei euskarazko produkzioa eta beren lanak ezagutzera emateko aukera eskaini gura die Laburbirak. Zirkuitua helduko den herrietako askok, txikiak izanda, gutxitan edukitzen dute zinema bertan eskaintzeko aukera. ◀



Korrika ospatzeko, afaria eta kantagunea egin ohi dute Erandion.

Korrikaren aurkezpena egingo dute Astrabuduan

Korrika 19 Urepelen hasiko da martxoaren 19an, eta Bilbon amaitu, hamar egun geroago, hilaren 29an, bi mila kilometrotik gorako ibilbidea egin eta gero. Eskualdean, hilaren 24an izango dugu euskararen aldeko lasterketa. Baina, egun hori heldu artean, Korrikaren berri emateko hamaika ekitaldi egingo dituzte herriz herri antolatutako batzordeek. Hilaren 6an, barikua, izango da Erandio inguruko aurkezpena. Musika eta umeentzako tailerrak egongo dira 18:00etatik aurrera, Astrabuduko Josu Murueta plazan, eta 19:30ean egingo dute aurkezpen-ekitaldia kul-

tur etxeko areto nagusian. Egitarauagaz jarraituz, Erandiogoikoan, hilaren 13an, barikua, egingo da Korrika jaia Euskadi plazan, 18:00etatik aurrera. Besteak beste, dirua batu eta materiala salduko dute. Ostean, afaria egingo dute Dandaka tabernan. Txartelak ohiko lekuetan eskuratu ahal izango dira, 20 euroren truke.

Amaitzeko, hilaren 14an, zapatua, Gose musika taldeak *Gosariak* bere azken lana aurkeztuko du Erandion. Emanaldia 20:30ean izango da Altzagan azoka zaharrean, Korrika Kulturak aurreikusitako ekitaldien barruan. Kontzertua doan izango da. ◀



GORLIZ

ArgiHizkiak ikusteko aukera badago oraindino

Eskualdeko ia herri guztietatik igaro ostean, Gorlizen egingo du azkeneko geldialdia ArgiHizkiak erakusketak; momentuz, hori da ixrita datuen azken ekitaldia, antolatzaileek adierazi dutenez. Hala, Uribe Kostako mailako 10 argakilarik helarazitako irudiak oinarri hartuta egin zen literatur lehiaketako testu onenak zein aipatutako argazkiak ikusgai egongo

dira Sertuxenaren (Eloisa Artaza, 3), martxoaren 10etik 22ra arte. Hilaren 8ra bitartean, horiek denak Lemoizko kultur etxean ikusteko aukera egongo da; eta Gorlizera bidaiatuko dute gero. Sertuxenako erakusgelako ordutegiari dagokionez, bisitak astelehenetik barikura 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 21:30era egin daitezke. Zapatuetan ere zabalik dago aretoa,

arrastiko 19:00ak arte. Eta domeketan eta jai-egunetan goizez bakarrik. Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta UK aldizkariak 2014ko erdialdean abiatu zuten ArgiHizkiak lehiaketaren hirugarren edizioa, Uribe Kostako hainbat erakunde publikogaz (Leioa, Berango, Getxoko udalak eta Mankomunitatea) eta herrietako euskarataldeakaz elkarlanean. ▶

2015/03/05

Matixkakoko itsas bataila gogoratzeko ekitaldia

Astondo | Gorliz
Kan delaria Kultur Elkarteak antolatuta
19:00

2015/03/05

Plataforma Tiranteren Desencadenarte antzezlan

Altzagako azoka zaharra | Erandio
Gaztelaniaz izango da
Sarrera doan
19:00

2015/03/05

Gringo rock taldea

The Piper's Irish Pub | Getxo
Getxo Zuzenean saioen barruan
Sarrera doan
20:00

2015/03/05 - 2015/03/07

Merkagune

Udalerrian zehar | Sopela
Azoka txikia, denetako ataurreetan
10:00-20:00

2015/03/05 - 2015/03/07

Getxo Market

Udalerrian zehar | Getxo
Ehun bat saltokik produktuak kalean salduko dituzte
10:30-20:00

2015/03/05 - 2015/03/08

Gazta Azoka

Algortako Telletxe plaza | Getxo
Hainbat tokitako gaztagileek parte hartuko dute
11:00-14:30 eta 17:00-21:30

2015/03/06

Kubatar emakume nekazariak erakusketa

Danontzat gaztetxea | Plentzia
Sarrera doan
18:00-21:00

2015/03/06

Las mujeres en la obra de Goya hitzaldia

Itzarturen egoitza | Sopela
Adela Buenorekin
Sarrera doan
18:30

2015/03/07

Berangoko emakumeen ikuskizuna

Berangoko Udala | Berango
Hainbat elkarteren ekimen ez
Sarrera doan
19:00

2015/03/07

Sofa, About Will, JaunDone eta Empty Files kontzertuan

Xurru pizzeria | Gorliz
Sarrera: 5 euro
19:30

2015/03/07

Habanera Jaialdia

Altzaga Kiroledegia | Erandio
Los Templarios (Castro Urdiales), Jose Maria Arregi (Mungia) eta Men dibaiarte (Erandio) abesbatzek kantatuko dute
Sarrera doan, eserlekuak bete arte
20:00

2015/03/08

Dantzaldia orkestrarekin

Altzagako azoka zaharra | Erandio
Sarrera doan
17:30

2015/03/08

El tour de los muppets umeentzako filma

Berango Antzokia | Berango
Animazio-zinea umeentzat, gaztelaniaz
Sarrera doan
18:00

2015/03/08

Casa de muñecas antzezlan

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Ibsen en antzezlanaren moldaketa garaikidea
Gaztelaniaz izango da
Sarrera: 3 euro
19:00

2015/03/09

Berdintasunean hazi eta hezi mahai-ingurua

Algortako kultur etxea | Getxo
Parte-hartzaileak: Lasarte-Usurbilgo DBH ikastetxea, San Nikolas Ikastola, Gobelak Ikastola eta Geroa Ikastola
Sarrera doan
18:30

2015/03/10

Emakumeen eskaladako

Mozorro-festak antolatatu dituzte herriko gazteek

Martxoaren 7an, zapatuan, ospatuko dute Plentzia eta Gorlizko Gazte Inauterien zazpigarren edizioa. Itsasoa izango da aurtengo gaia. Horrenbestez, 13:00etan hasiko dituzte ospakizunak Plentziako Astillero plazan, txupina botaz. Alde zaharretik triki-poteoan abiatuko dira, 15:00etan frontoira heldu eta bertan bazkaria egingo dute. Bazkalostean bingoa eta ginkana egingo dituzte (17:00), Ttek elektrotxaranga joko du (20:00), eta sariak banatuko dituzte. Azkenik, Anderground eta Urrats taldeek kontzertua emango dute Danon-

tzat gaztetxean. Egun berean, hilaren 7an, jai mexikarra egingo dute Getxoko Txorimalo gaztetxean. Afaria, 3 euroren truke: natxoak, takoak eta postre berezia. Ostean, kapela erraldoien eta morro mexikarren txapelketak egingo dituzte. Gozo-eltzea ere ez da faltako. ◀



SOPELA

Erabakitzeako eskubideaz Sopelan

Martxoaren 6rako, barikua, berbaldia antolatatu du Gure Esku Dago taldeak Sopelan. Hitzordua 19:00etan jarri dute Kurtzio kultur etxean. «Erabakitze eskubidea printzipio demokratiko gisa» izenburupean, ekimeneko kide Zelai Nikolas eta Iñigo Urrutiak hartuko dute hitza. ◀

Noiz: Martxoak 6, barikua. 19:00**Non:** Kurtzio kultur etxea**Sairrera:** Doan

Zelai Nikolas eta Iñigo Urrutia izango dira hizlariak

GETXO

Sexuen arteko borroka antzertuko dute Areetan dozena bat emakumek

Emakumeak eszenan zikloaren barruan, Las lisystratas antzezlanaren egongo da ikusgai martxoaren 7an, zapatua, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Emanaldia 19:00etan izango da eta sairrerak 3 euroan salduko dira. Aipatutako lana Hortzmuga Teatroak Besarkak da Federazioagaz lankidetzan egimiko proiektua da. Antzinako Greziako Aristofanes egilearen komedian oinarrituta dago *Lisistrata*. ◀



URDULIZ

Aurrera doaz Inola elkartearen zinema-jardunaldiak

Urdulizko Inola emakumeen elkarteak otsailean abiatu zituen genero ikuspegiko zinema jardunaldiak. Hala, martxoaren 6an, barikua, beste saio bat eskainiko dute. Oraingo honetan, Pilar Perez Solanoren *Las maestras de la Republica* dokumentala egongo da ikusgai. Emanaldia 19:00etan hasiko da herriko kultur etxean. Sairrera doakoa izango da. ◀



Zer diote kanten hizkek? tailerra gazteentzat

Aterpe Leioa gaztegunea | Leioa
Euskaraz eta gaztelaniaz
19:00

2015/03/06

Korrikaren aurkezpena

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Aurretik, musika eta umeentzako tailerak egongo dira plazan
19:30

Cumb-Girl Party txapelketa

Sakoneta kiroldegia | Leioa
Sairrera doan
17:00

2015/03/12

Laburbira

Emakumeen elkartearen egoitza | Erandio
Euskaltzaleen Topagunearen eskutik, zortzi film labur eskainiko dira
Sairrera doan
19:00

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Gramofono ixila

LANDER
UNANUE MENDIGUREN
Abarkatxo

Desdigitalizazio- rantz, bizitzarekin konektatuz

Herriaren erdian kokatuta dagoen eraikineko horma bertikalean, adreilu artean, urkitz berde baten kimua ageri da.

Bizitza erosoagoa izateko erabiltzen ditugu teknologiak ahalbidetutako tresnak: tipula txikitzeak aitzak nahiz gure pentsamenduen atari den burukoia edota hortzetako eskuila bera. Azken urteotan, ordea, tresna digitalek eragin nabarmena izan dute gure eguneroko bizitzan eta informazio hartzaile asezin bilakatu gaituzte.

Egia da, egunean bertan argitaratutako egunkarietako berriak berehala zaharkitzen direla, inoiz baino arinago jasotzen baitugu ingurukoaren berri, sareko egunkari, Facebook, Twitter edota WhatsApp-aren bitartez. Hala ere, komunikabide horietatik «zarata» mezuak ere bada tozkigu, non errealitatea eta fikzioa nahasten diren. Oporretako argazkiz bete da erakusleioa, janari exotikoz, parrandetako irribarrez, gogoratu behar ez ditugun urtebetetze egunetako zorion mezuez, ondo atera arteko «selfie» berekoiez... beldur eta tristurak biltegi ilunean giltzapezuz ezkututzen ditugula; hainbat keinu egiten duten aurpegitxo hori horiek ahotsa lapurtu baligute bezala. Gainera, askotan, leiho horri lehentasuna ematen diogu, momentuan lagunarekin hartzen ari garen kafea hozten doan bitartean; mundu birtualera salto egiten dugu aurrean dugunari bizkarra eman eta hura ere salto hori ematera behartuz. Antza, inoiz baino konektatuago gaude, baina konektatuak zerekin? no-rekin? pertsonekin ala gailuekin?

Tresna guztiak bezala, ondo erabiltzen direnean dira eragin korrak.

Burumakur dabil jendea kaletatik, pantailatxoari begira, urkitz berdea haiei oihuka ari den bitartean. ◀

Osasuna hobetzeko astea martxan da, Plentzian



Tailer eta hitzaldi gehienak Goñi Portalean egingo dituzte.

Bizimodua eta jarrera osasuntsuagoak bultzatzeko, eskualdeko Osasun Astea egingo dute Plentzian. Hainbat tailer, ikastaro eta berbaldi egingo dituzte. Horietan parte hartzeko, alde zuzenetik izena eman beharko da.

Uribe Kostako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak Osasun Astearen hirugarren edizioa egingo du Plentzian, uribekostarron bizimodua eta jarrera osasuntsuagoak izan daitezen bultzatzeko asmoz. Lehenengo ekimena su-

kaldaritza ikastaroa izango da; eguaztenero martxoaren 18tik ekainaren 17ra arte, Plentziako ikastetxean, 19:30etik 21:30era. Martxoaren 6ra arte egongo da horretan izena emateko epea.

Martxoaren 17an, berriz, sare sozialetan inguruko tailerra egingo dute, gu-

rasoei zuzenduta. Hitzordua 18:00etan jarri dute, Goñi Portalean. Horretan parte hartzeko martxoaren 12an baino lehenago eman beharko da izena. Halaber, pelbis-zoruaren inguruko ikastaroa egingo dute, martitzenero, apirilaren 14tik maiatzaren 5era arte, 19:00etatik aurrera.

Horiez gainera, bularreko minbi-ziari eta bullying-ari buruzko hitzaldiak emango dituzte, apirilaren 23an eta apirilaren 30ean, hurrenez hurren; Goñi Portalean, 18:00etatik aurrera. ◀

Info+: www.plentzia.net

Seme-alaben hezkuntza kudeatzeko programa

Eskualdeko gurasoei zuzenduta, seme-alabak hezteko hainbat tailer eta hitzaldi antolatu ditu Uribe Kostako Mankomunitateko Adikzio eta Osasuna Sustatzeko Zerbitzuak. UK Familiak izeneko programa horretan, gai ezberdinak jorratuko dituzte, seme-alaben eguneroko hainbat egoera gatazkatsuri zelan aurre egin ikasteko.

Egitasmo hori Makomunitatearen eta guraso elkartearen arteko lankidetzari esker piñi dute martxan. Antolatutako tailerretan, gaur eguneko gazteen eguneroko bizitzan gerta daitezkeen egoerak jorratuko dituzte, esaterako sare sozialak eta bullying-a. Ekintza horiek herriaren arabera jorra-

tuko dituzte: Berangon, sare sozialak eta enpatia; Gorliz, gatazken eraldaketa eta nerabearoa; Plentzian, sare sozialak eta bullying-a; Sopelan, nerabearoa eta autoestimua; eta Urdulizen, emozioak, denboraren banaketa egokia, eta ikasketaren ohiturak eta teknikak.

Berbadi horiek guztiak doakoak izango dira, eta edonor joan ahal izango da. Hala ere, ekimen horietan parte hartzeko, interesatuek hitzaldia izan baino bost egun lehenago eman beharko dute izena. ◀

Info+: www.uribekosta.org
Harremanetarako: preven@uribekosta.org
946 578 810

Paisaien argi eta itzalen mugimendua, Veva Linazaren mihiseetan

Algortako Torrene kaleko 3. zenbakiko Torrene aretoak Veva Linaza artistaren *Gerizpean* erakusketa hartu du. Seriea hilaren 29ra arte ikusi ahal izango da.

Aipatutako lana, *El tiempo de la pintura* (Desplazamenduak paisaiarantz) proiektuaren parte da, eta horretan zenbait azterketa barne hartzen ditu, paisaiaren eta pinturaren denboraren arteko borroka planteatuz. *Gerizpean* seriea osatzeko, Linazak bideo-grabazioen bidez paisaiek eratzen zuten argi eta itzalen mugimendua tailerrean erroan zuen, bertan pintura-konposizioak osatzeko. ◀

Info+: www.getxo.net

«Emakume kurduak patriarkatuak sortutako zapalkuntza uxatu dute»

Newroz Euskal Kurdu Elkarteak Kurdistaneko eta hemengo herritarren egoera gizarteratzeko egiten du lan.

Martxoaren 1ean Julia Iglesias Newroz Euskal Kurdu Elkarteako kideak Kurdistango emakumeen eta Rojavako iraultzaren inguruko hitzaldia eman zuen Getxon, Maryam Fathi elkarteako kide kurduagaz batera.

Noiz hasi zen Rojavako iraultza?

Rojava Siriako iparraldean dagoen lurraldea da, Turkiako eta Irakeko Kurdistanegaz muga egiten du. Rojavako iraultza 2012ko uztailaren 19an hasi zen, konstituzioa sinatu zutenean. Horri Gizarte Kontratu deitzen diote. Nahiz eta data hori hasiera ofiziala izan, Rojavako kurduak urteak daramatzate antolatzen.

Hainbat estatu kolperen ostean, 1971ean «Real Socialism» erregimena ezarri zenean, milaka kurduri hiritartasuna kendu zizkioten. Jaio berriek ez zuten eskubiderik, eta politikoki eta sozialki isolatuta zeuden, «herri-gabeak» ziren. Halaber, kurduen lurraldean arabiarren establimenduak egiten saiatu ziren, kurduak kanporatzeko. Hori dela eta, Rojavako hiru kantonamenduak bananduta daude.

Udaberri arabiarrek giro sozial eta politiko kaotikoa etorri zen. Behin gerra zibila hasita, Rojavako herritarrek hirugarren bidari ekin zioten. Logikoki, ez zuten Al-Assaden gobernu ezta talde matxinatuak babestu. Une horretan euren burua gobernatuko zutela erabaki zuten. Esan genezake euren eredu politikoa sistemaren kontrako eredu dela, Estatu-Nazioen ereduak euren bizikidetasuna ez duela konponduko oinarrituta.

Kantonamendu autonomo bakoitzak (Afrin, Kobane eta Cizire) bere Asanblada Legislatiboa du, erabaki guztiak herritarren parte-hartzeagaz egiten dira; Asanblada Eratzailea eta Asanblada Erregionalak dituzte. Sistema ko-presidentziala erabiltzen dute, hau da, kargu bakoitzak bi ordezkari ditu: emakumea eta gizona.

Zein izan da emakumearen zeregina iraultza horretan?

Emakumearen zeregina funtsezkoa da. Hori guztia PKK (Kurdistaneko Langi-



Elkarteak bloga erabiltzen du albisteak hedatzeko: www.newrozeuskalkurduelkartea.wordpress.com

leen Alderdia) Turkia eta Siriako kurduen alderdirik herrikoienaren eboluzio ideologikoaren emaitza da. Sortu zenetik 1978an, emakumeak alor guztietan parte hartu du. Esan genezake Konfederalismo Demokratikoaren bizkarrezurra emakumearen askapena dela. Emakumea askatzea askatasun sozialaren sinonimoa dela uste dute. Rojavan patriarkatua suntsitu dute; politikoki eta militarri antolatu dira, eta emakumeen jabekuntza definitzeko hitz propioa ere sortu dute: «Jineology»; «emakumearen zientzia» izango litzateke kontzeptu hori.

« Emakumea askatzea askatasun sozialaren sinonimoa dela uste dute kurduak »

Rojavako emakumeek, Estatu Islamikoaren erasoei aurre egiteaz gain, euren gorputzean eta buruan ere iraultza eragin dute, patriarkatuaren zapalkuntza betiko uxatzeko.

Zergatik da garrantzitsua Kobane?

Lau hilabeteko erasoei eutsi egin die-lako. Herriaren Babeserako Unitateak (YPG) eta Emakumeen Babeserako Unitateak (YPJ) Estatu Islamikoari aurre egin eta gainditu zioten. Baina, zergatik egin zion eraso Estatu Islamikoak Kobaneri? Bada, bertan inguruko herrialdeek beldur dioten eredu demokratikoa dagoelako.

Emakumeen Mundu Martxa abiatuko da Kurdistanetik martxoaren 6an...

Naturala da mundua Kurdistanera begira egotea, bertan jazo diren erresistentzien eta herri-proiektuen ondorioz. Martxa Nusaybinetik (turkiako Kurdis-

tan) hasiko da, eta hortik mugara hurbilduko dira Rojavako kurduak agurtzera. Martxa horretara nazioarteko emakumeen delegazioak joango dira, «Jin, Jiyan, Azadi» lemapean (Emakumea, Bizitza eta Askatasuna). ◀

«Joseba Sarrionandiak esaten duen moduan, orain dantza da gure barrikada»

Ines Osinaga arrasatearra buru, *Gosariak* diska aurkezten dabil herriz herri Gose taldea. Musika hirukoteak jarri du; berbak, Joseba Sarrionandiak, eta «soinekoa», Juan Luis Goikolea eta Iñigo Arregi artista plastikoek. Korrika Kulturalaren barruan, martxoaren 14an emango dute kontzertua Alzagako azoka zaharrea, sarrera doan; Leioan egon ginen eurekaz...



KEPA UGARTE MARTIARENA



Zelan definituko zenuke *Gosariak* lana?

Lan honetan esaten diren gauza guztiak bezala, *Gosariak* aurkezteko esaldia Joseba Sarrionandiak idatzi zuen: «Bi gose mota daude idatzi zuen: aho urdailekoa eta zentzu gogamenekoa. Hauek dira goarentzako gosariak». Ez dauka azalpen askoren beharrik.

Gose desberdin bat topatuko dugu?

Bai, zalantzarik gabe. Lan honetarako sorkuntza-arlo desberdinetan gabiltzan lagunak batu gara. Elkarlanaren ondorioa da *Gosariak*. Eta pertsona diferenteak batzen garenean zer edo zer egiteko, ondorioetako bat izaten da bakarrik inoiz egingo ez genituzkeen gauzak egiten ditugula beste baten eskutik. Hori bizitzako beste arlo askotan gertatzen da. Disfrutatzeaz gain, *Gosariak* lanarekin zerbait egin baldin badugu, ikastea izan da. Ikasi dugu benetako talde-lana zelakoa den. Ze, egia esan, Gose ez zegoen oso ohituta taldean lan egitera.

Orain arte zuek bakarrik ekoitzi dituzue diskoak.

Ohituta geunden guk kantuek egitera, letrak idaztera, grabatzera, nahastera, diskoak ekoiztera, diseinuaz arduratzera, kontzertuak lotzera... Ez zaigu erraz suertatu, ez. Baina, poztasun handia ematen digu pertsona desberdinekin zelan egiten diren gauzak ikasi izanak; zuk zeuk bakarrik egingo ez zenituzkeen moduan, alegia. Erronka handia izan da hiru sorkuntza-bideren artean denona sentituko ge-

nuen zer edo zer egitea, eta, aldi berean, bakoitzak bere sentituko zuena. Gose desberdin bat aurkituko duzue, bai, baina inoiz baino Goseago.

Ze elementuk osatzen dute *Gosariak* lana?

Esan bezala, *Gosariak* hiru sorkuntza-bide desberdinek osatzen dute. Hitzak Joseba Sarrionandiarenak dira; musika, Goserena, eta lanaren soinekoa edo edukiontzia Juan Luis Goikolea eta Iñigo Arregi artista plastikoena. Eurek ukigarri egin dute lana. Iñigo gehiago da eskultorea, Jose Luis gehiago da marraz-

“**Erronka izan da denona sentituko genuen zer edo zer egitea, eta aldi berean norberak bere sentituko zuena**”

kilaria... Hasiera-hasieratik gura genuen Goserena estetikarekin apurtzea. Izan ere, bost diskoen ostean Gosek itxura oso markatua zeukan eta horren esklabu ez genuen izan gura. Argi geneukan lan honek beste itxura bat eduki behar zuela eta beste izen bat.

Ez genuen nahi lan berria Goserena izenean kaleratu, hiru-sorkuntza bide horien izenean baizik. Beste alde batetik, liburu-diskoa dikotomia horregaz

apurtu gura genuen. Goseri hirukoteak askoz gehiago gustatzen zaizkio, bikoteak baino. Iruditzen zaigu askoz dibertigarriagoak eta demokratikoagoak direla. Hirukotekideakaz bai ala bai eztabaidatu behar duzu. Ez da gertatzen berdinketarik inoiz. Hirukoteagaz oso identifikatuta sentitu gara beti.

Lanaren diseinuari garrantzi handia eman diozue.

Argi geneukan hirugarren elementu horrek diseinua edo arte plastikoa izan behar zuela. Horregatik harremanetan jarri ginen Juan Luis eta Iñigorekin, biek. Gainera, jolas hori ere asko gustatu zitzaigun: idazlea bat da, artista plastikoak bi dira, musikariak hiru gara. Hasieratik euren eskuetan utzi genuen lan honen soinekoa zelakoa izango zen erabakitzea. Zelan egingo zuten ukigarri. Ondorengo erronka izan zen eurek buruan zeukaten artelan hori zelan egin eskuragarri, autoekoizpenaren ikuspuntutik oso garestia ez izateko. Iñigok diseinatu zuen kartoizko eskultura. Hori da musika eta hitzak batzen dituen kaxa, baita irudiak eta koadroak biltzen dituen ere. Gainera, eskultura bera ere eskultura bada. Hortaz, bakoitzak erabaki dezala liburuaren atalean, diskoen artean edo egongelako apal batean, koadroen ondoren, jarri gura duen.

Beraz, *Gosariak* disziplina anitzeko lana dugu.

Bai, noski. Horrela izatea gura genuen. *Gosariak* ukitzen diren abestiak, irakurtzen diren koadroak eta entzuten diren hitzak dira.



Gosarien menua

Joseba Sarrionandia idazleak, Gose musika taldeak eta Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea artista plastikoek indarrak batu dituzte *Gosariak* lanean. Sarrionandiak sortutako testuak kanta bihurtzen dira Gosereren aho-eskutik, eta, era berean, irudi Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolearen lanari esker, eozein norabide har dezakeen lan bakarria biribilduz. Nortasun, askotariko elementu eta espazio eta desberdinek bat egiten dute bost zentzumenak elika ditzakeen obra osatzeko.

Sarrionandiaren emaria laburbiltzea ez da kontu erraza. Erbestean dela, poesia, saiakera, eleberria eta kontaketa laburrak idatzi ditu, eta euskarazko literaturako idazle emankorrenetako bat da.

Artista plastikoei dagokionez, Arregik gehiago du eskultoretik eta Goikoleak gehiago marrazkilaritik. Eurek egin dute lanaren soinukoa edo edukiontzia.

Gosek 2004an hasi zuen bere ibilbidea. Trikiaren eta elektronikaren arteko amodio istorio hark halako fruitua eman ahalko lukeenik gutxik espero zezaketen orduan. Euskal kultura, euskara, eta, oro har, euskal musika oinarri hartuta abiatu zen proiektua. Beti ere, ordenagailuko pantailaren beste aldetik begiratuta. Hori baita Gose: elektronika eta arima.

Abestiak, koadroak, berbak... Hori guztia islatuta ikusten da eszenatoki gainean?

Gosariak zuzenekora eramatearen ardura Gosek hartu du. Esan barik doa Joseba erbestean dagoela eta ezingo dugula ikusi ez eszenatoki gainean, ezta azpian ere. Berak esan ohi digu afaritarako etxera etorririko dela. Bestalde, aipatu behar da *Gosariak* ez dela Gosereren ohiko kontzertu bat. Lehentxeago ere esan dut *Gosariak* ez dela Gose. Hamar urtean zehar kontzertuetan egin ez ditugun gauzak egiteko, eta, une batez behintzat, gonak alde batera utzi eta praktikak janzteko aprobetxatzen gabilta.

Beste artista batzuen laguntza izan duzue?

Zeharka bada ere, lagun asko daude nahastuta modu batean edo bestean lan honetan. Eta gure lagunak ez dira futbolariak. Musikariak, aktoreak, argazkilariak... dira. Besteak beste, Mikel Clementek egin zuen *Zoroetxeko harresia* bideokliparen gidioia. Berak zuzendu zuen. Gainera, Mikelek argi zeukan, *Gosariak* ekimena Goserena bakarrik ez zela eta sortzailleetako bat gure artean ez dagoela kontuan izanda, gutariko inor ezin zela agertu bideoklipetan. Aktorea topatu nehar genuen. Zalantzarik ez genuen. Ander Lipus baino aktore maiteagorik ez daukagu. Berak izan behar zuen zoroetxeko zoro hori.

Mikel Clementeri dagokionez, zer esanik ez. Bideoklipak zelan gura ditugun ez diogu esan beharrik. Elkarlanaren ondorioz sortutako konplizitate hori gozamina da! Berdin gertatzen zaigu David He-

rranzekin. Bera da Gosereren argazkien arduraduna. Heldu da unea guk ez dioguna esan beharrik Davidi argazkiak non edo zelakoak gura ditugun.

Ikuslegoari dagokionez, kontzertuetan zelako harrera egin diote *Gosariak* lanari?

Oso harrera ona izaten ari da. Gainera, zerbait bitxia gertatzen ari zaigu *Gosariak* diskoarekin, aurretik gertatu ez zaiguna. Oker ez banago, urriaren bukaeran kaleratu genuen lana. Geroago etorri zen Durangoko Azoka. Bertara ale pila bat banatuta hel-

“ Orain arte egin ez ditugun gauzak eginda, gonak alde batera utzi eta praktikak janzteko aprobetxatzen gabilta ”

du ginen, eta urtarrilean hasi ginen diskoa zuzenean aurkezten. Bada, denbora bat pasatu zenez argitaratu eta zuzeneko emanaldiak arte, bira hasieratik jendeak kantuak identifikatzen ditu, ezagutzen ditu... eta hori gutxi balitza bezala gurekin batera kantatzen ditu orain. Oso politak dira gauza horiek. Gainera, oso kontzertu bereziak izaten ari dira. Gu ere ari gara aprobetxatzen gauzak beste modu batean egi-

teko. Kontzertu guztiak areto itxietan ematen gabilta. Orain arte ohituta geunden Gose jaietan, txosnaguneetan eta Euskal Herrian dauzkagun horrelako jaialdi dantzagarrietan ikusten. Oraingoan, eserita izango dira saioak, leku itxietan eta gu bakarrik.

Kontzertuak areto itxietan egitea gauza guztiz ezberdina izango da zuentzat.

Gu ere aprobetxatzen ari gara kontzertu bakoitza modu oso berezian zaindu eta mimatzeko, beti ezin izaten da. Argiztapena, eszenatokiaren diseinua... eta horrelakoetan arreta handia jartzen gabilta. Erronka handia da guretzat, ideiak eta gogoak oso modu desberdinean komunikatzen baitira testuingurua aldatzen denean. Energia oso modu diferentean mugitzen da. Hori guretzat aldaketa handia da. Kasik azken hamar urte hauetan gauzak egiten ibili garen moduan piloto automatikoa itzali eta beste era batean egitera bultzatzen gaitu. Baina, beste alde batetik, oso gustura hartzen ari gara. Oso politak eta bereziak izaten ari dira kontzertu guztiak.

Emanaldiak eserita izateak ez du esan gura ezingo dela dantzarik egin, ezta?

Ez, eserita izateak ez du esan nahi dantza egin ezin izango denik. Eszenatokian Gose jarraitzen gara izaten. Joseba Sarrionandiaren hitzak gogoratuz, orain dantza da gure barrikada. Beti esan dugu. Baina, iraultza egiteko modu asko dauden bezala, dantza egiteko ere modu asko daude. ◀

Getxo Rugby: play-off-etan eta garaiezina

Getxo Rugbyko emakumeak euren legea ezartzen dabilta Espainiako Ohorezko Mailan zein Euskal Ligan. Partida bat ere ez dute galdu.

Ohorezko Mailan, merezitako atsedenean dira egunotan Getxo Artea errugbi taldeko jokalaria. Otsailaren 21ean jokatu zuten orain arteko azken partida, Cisnerosen aurka, eta martxoaren 15ean izango dute hurrengoa, Faduran. Hori-beltzak bigarren doaz sailkapenean, 23 puntugaz. Sailkapeneko lehen taldeak, Coruñaeko CRATek, norgehiagoka bat gehiago jokatu du. Gainera, puntu bat besterik ez dio ateratzen, eta, balizko berdinketa batean, Andoni Saituak entrenatzen dituen emakumeek abantaila izango lu-

kete, 20-5 irabazi baitzuten Faduran jokaturako deman. Daborduko, liga amaitzeko partida bi falta zaizkio eta Getxo Arteak bere lekua bermatu du *play-off*-etan, Erreginaren Kopa helburu. Ana Masa Pereiroren iritziz, «ez dugu ezer irabazitzat jo behar. Lanean jarraitu behar dugu orain arte lortutakoa mantentzeko». Izan ere, taldeko kapitainetako batek uste du «oraindino oso zailak diren partidak falta» zaizkiela, Bartzelona eta Olinpikoa gogoan. Halere, pozik agertu da orain arteko emaitzakaz eta taldeagaz: «lantalde oso motibatua dugu, oso langi-



Partida bat ere ez dute galdu getxoztarrek denboraldi honetan. © GETXO RUGBY TALDEA

leak dira. Entrenatzaileak eta zaleek gudan sinisten dute eta hori nabaritzen da». Kide berriak badira ere, oinarrian hainbatek urteak daramatzate hemen: «aurten batasun hori zelaiaren erakusten gabilta», dio Masak.

Euskal Liga

Espainiako Ohorezko Mailan eta Erreginaren Kopan pentsatu aurretik, ostera, Euskal Ligan falta diren norgehiagokek kezkatzen dituzte getxoztarrak. Bertan, hiru partida gelditzen dira, eta lehenengoa zapatuan izango dute La Unica taldearen aurka, 19:00etan,

Bilboko Fango zelaian, Faduran beste zenbait partida izango delako. Hori-beltzek beste puntu dute Nafarrek: 35, baina dema bat gehiago jokatuta. La Unicaren atzean amildegia dago taulan, eta, beraz, ganorazko arerio bakarra garaitzeko hamaikak eta bi egin beharko dituzte uribekostarrek. Horrek bermatuko lieke Euskal Ligako hurrengo demetan jokalaria berri gehiago zelairatu ahal izatea eta beteranoenak Ohorezko Mailako partidetarako gordetzea. Halere, «lana, konstantzia eta jarrera» beharko dute, Masaren ustez. ◀

Emakumearen eguna, kiroltasunez Barrikan

Barikuan, hilak 6, ekingo diote Barrikan Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikatu eta ospatzeari, eta, gehienbat, kirol ekitaldiak egingo dituzte. Salbuespen bakarra izango da hasierako jarduerak, Barrikako emakumeak omentzeko bazkaria, alegia. Arrastiko 14:00etan jarri dute hitzordua Iparralde jate-txean. Bertan edonork parte hartu ahal izango du eta Emakumeen Hitzak elkarteko bazkideek txartela doan izango dute, beti ere aurretik izena eman badute.

Padel txapelketa

Kirol ekimenei dagokienez, zapatuan emakumezkoen arteko bigarren padel txapelketa jokatu dute, Barrikako Abaroa tenis-taldeak antolatuta. Dema Ameriketara egiten duten bezala izango da: denek denek aurka. Zaleek udal pistetan jarraitu ahal izango dituzte norgehiagokak, arrastiko

15:00etatik aurrera. Finalistek garai-kurra irabaziko dute, baina parte-hartzaile denek eroango dute zerbait bueltan, antolatzaileek elastikoak banatuko baitituzte. Era berean, partidaren ostean mokadua hartzeko aukera izango dute, indarrak batu eta arerio izandakoak harremanak estutzeko.

Estropada

Azken kirol-proba, baina, ikusgarriena izango da. Barrika Piragua Taldeak antolatuta, Emakumearen Nazioarteko Egunean, domekan, ehun bat emakumezko palista irtengo dira uretara. Emakumeen VIII. Piragua Estropadan jardungo dute. Irteera klubeko instalazioetan jarri dute, Larretxe auzoko 14. zenbakian, goizeko 11:00etan. Estropada amaitu ostean, txokolata-janaz ospatuko dute ekimena. ◀

Info+: 665 615 120 (Emakumeen Hitzak)
Info+: 655 709 693 / 607 669 073 (Abaroa)
Info+: barrikapiraguataldea@gmail.com

Futbolekin kalean jokatzeko zer den berreskuratzea erraz ipini die neska-mutilei Athletic Fundazioak

Pasa den domekan, hilak 1, Futbola Kalean ekimena abiatu zuen Athletic Fundazioak, Leioako Barandiaran institutuan. Domeka honetan, berriz, Larrabasterrako Urgitxeta plazan jokatu dituzte partidak, eta ekainaren 7an, finalerdiak izango dira Algortako Ereaga hondartzan. Finala Lezamako zelaian hartuko du, ekainaren 14an.

Hirugarren urtez, Fundazioak honako hau eskaini die neskei zein mutili: «kaleko futbolaren funtsa berreskuratzea, olgeta espiritua, partidetza soilarena. Jokoaren bat-batekotasuna eta askatasuna, entrenatzaile eta nagusirik gabe». Ondo pasatzeko eskaintza kimu eta benjamin adinetakoentzat da, 2003 eta 2006 artean jaiotakoentzat, biak barne, alegia.

Guztira, 20 herritan jokatu da lehiaketa. Denetan, ateak eta zelaiak lurtzorian marraztuta egongo dira, aspaldi egiten zen bezala. Partida denak 10:30etik 13:30era izango dira, eta lau



Partida domekan izango da. © LEIOAKO UDALA

lagun besterik ez dira behar izango taldea osatzeko, atezain barrik. Jolasteko araurik ez da egongo. Partida bakoi-tzak 10-15 minutuko iraupena izango du. Bi talde sailkatuko dira: irabazlea eta joko garbiena darabilena. ◀

Info+: 902 014 357
Info+: futbolkalean.com

Plentzia, zelai eta nagusi barik

Aurten 90. urtemuga ospatzen ibili behar zuen Plentzia kirol elkarteak. Taldearen desagerpenaz serio dabilta berbetan egunotan herrian, oster, eta kluba egoera nahasian dabil: Gorka Zuazo presidentek dimisioa eman du eta apirilaren 5ean sartuko da indarrean; bazkideek sinadura-kanpaina abiatu dute; jokalariek partidetan eserialdiak egin dituzte; taldeak Astillero plazan entrenatu dira; eta, bariku honetan, hilak 6, manifestazioa antolatu dute 19:00etarako, futbol zelaitik udaltxera. Arrazoiak Errotabarrin topatu beharra dago: zelaia «arriskutsua da eta bertan ia ezinezkoa da futboleantze», dio kirol-elkarteak. Otsaileko

euriteek barra-barra ureztatu zuten, baina kirol-elkartea sumindu duena Udal Gobernuak bertako lanakaz busti ez izana da: berriki esan du obrak ez dituela egingo. Aurretik, Isabel Zarauza alkateak (PI) 2013an agindu zuen «aspalditik egoera oso kaskarrean» dagoen herriko futbol zelai «bakarra» konponduko zuela. Udal Gobernuak Errotabarriko lanak «lehenasunez-kotzat» jo eta 245.000 euro agindu zituen lau urterako, beste alderdien babesaz. Iaz zundaketak egin ziren eta egoera gehiago okertu zen. Gaur egun, «alfonbra ia leku guztietatik apurtuta dago. Jokalariek lesio larriak pairatzea eragin dezake horrek». Mila bat erabil-tzaile dauka zelaiak. ◀



Errotabarriko futbol-zelaia arriskutsua da jokalarientzat. © PLENTZIA KIROL ELKARTEA

Jaitsiera postuetatik urruntzen dabil Leioa



Leioaztarrek galeren bolada eten zuten Real Madrid Castillaren aurka. © LEIOAKO K. E.

Zapatuan bidaiaria berezia izango du Leioako futbol talde nagusiak. David Movillaren mutilek Madrilgo Vallecas auzoa dute jomuga. Bertako kirol hirian, hil ala biziko partidari aurre egin beharko diote, Bigarren B mailan jarraitu nahi badute. Izan ere, Rayo Vallecano B arerio zuzena izan daiteke, beste bolada txar batek uribekostarrak jaitsiera gunera berriro ere eramaten baditu. Hiru puntu besterik ez dira alde ilunetik banatzen dituztenak, partida bat galtzea ala irabaztea, alegia. Sei norgehiagoka irabazi barik eta azken bostak gal-

tzen eman ostean, pasa den asteburuan buruak altxatu ahal izan zituzten urdin-gorriek, Yurrebasok Real Madrid Castillari Sarrienen sartu zion golari esker. Garaipen hura Montero, Larruzea, Vitoria, Goikoetxea, Coch eta Cordoba barik eskuratu zuten. Lehenengo lauak lesionatuta zeuden, eta Cordoba zigortuta. Joel Coch, berriz, Balear Uharten Federazioagaz izandako arazoengatik ezin izan zen bere fitxa bideratu, eta ikusteko dago Vallecasera joaterik izango duen. Julio Montero, azkenik, kirolfanotik pasatu behar da eta denboraldi osoan ez du jokatu. ◀

Jaime Busto maila gorenean lehiatzen dabil

Jaime Busto trial pilotu gorliztarrak Repsol Honda-Montesa taldeagaz sinatu berri du. Bustok maila nagusira igo eta Trial Munduko Txapelketako proba denak korritzeari ekin dio 17 urteagaz, ondoan Takahisa Fujinami eta Toni Bou pilotu beteranoak dituela. Motorzale katalanak Montesa Cota

4RT motor berriaz aholkatzen diola onartu du Bustok. Modelo berria da gaztearentzat, lau aldiko motorra du. Orain arte, txapelketa denak irabazteko aldi biko motorrak erabili ditu gorliztarrak. Azkena, iaz, gazte mailako mundu txapelketan (FIM World Cup). Bustok badaki dena zailagoa dela kategoria berrian, nagusien artean, baina anbizioa dauka: «zortzi onenen artean bukatzea lortuko banu, erabateko arrakasta litzateke». Gainera, «epe luzer nire xedea munduko txapelketa izatea da». ◀



Elaia Torrontegi Ronco taekwondolari plentziarrak brontzeko domina irabazi zuen otsailaren 21ean, Egiptoko Alexandria hiriko Open txapelketan, 49 kilo azpiko G1 kategorian. Ostean, Luxorren izan zen, baina han ez zuen hainbeste zortzerik izan.

© ESPAINIAKO TAEKWONDO SELEKZIOA

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902.103.763

☞ kartelgintza



☞ inprimategia



☞ kopisteria



cianoplan
GLOBAL PRINTERS

Beñaten alde, pedalei eraginez



Aurreko edizioak arrakastatsuak izan dira. © PUNTA GALEA TXIRRINDULARITZA ELKARTEA

Datorren martxoaren 14an, zapatua, Punta Galea txirrindularitza-elkarteak Beñat Mardarasan aldeko hirugarren elkartasun-jaialdia egingo du Fadura belodromoan. Parte-hartzaileen kopurua mugatua denez, izen-ematea ahalik eta lasterren egitea gomendatu du kirol-taldeak. Askoz jota martxoaren 10era arte, martitzena, luzatuko dute inskripzio-epea. Jaialdi-egunean, goizeko 9:00etatik aurrera zer ikusi eta zertaz gozatu izango da Faturan: 4 eta 6 lagun arteko taldekako erlojupekoan, zikloturistek belodromoari 15 bira eman beharko dizkiote; goizeko 11:00etatik 13:00etara ume zein gazteek ginkanan trebatzeko aukera

izango dute; elkartasun-txosnan mokaduak eta edariak izango dira; eta bazkaltzeko, paella erraldoia prestatuko dute. Gainera, zenbait kirolari ospetsu ere bertan izango da. Punta Galeak gogoratu duenez, kirol-proban parte hartzeko «ez zara txirrindulari trebea izan behar; nahikoa da bizikleta, kasikoa eta Beñat eta bere sendia laguntzeko sekulako bihotza izatea». Beñat Mardaras zortzi urteko ume algortarra da, bihotzeko gaitz arraroa duena. Hemen ebakuntza egitea arriskutsua zela ikusita, gurasoek Bostonera eramatea erabaki zuten. Birritan operatzeko 280.000 bat euro behar dituzte. Lehen ebakuntza urriaren 22an egin zioten. ◀

Info+: 944 307 631 (Punta Galea)

Leioan aldats gora

Mendiaren astea hartuko du Leioak astelehenetik domekara. Bertako mendi-taldeak antolatuta, besteak beste Bilboko Mendifilm zinemaldiaren pelikularik onenak ikusteko aukera izango da, Mendi Tour Leioa ekimenari esker. Horrez gainera, Estibaliz Kerexeta, Alexander Arrizabalaga eta Nerea Zabala izango dira martitzenean, egunean eta barikuan, hurrenez hurren. Astea borobiltzeko asmoz, 20 kilometroko txangoa prestatu dute domekarako. Burgosko Motas del Pardo, Marruya eta Coter mendiak igoko dituzte. ◀

Info+: Leioamendialdea.com

Egitaraua

Martxoak 9, astelehena

20:00 Mendi Tour zinemaldia (3 euro): *Afterglow* (euskaraz) eta *Valley Uprising*, Kultur Leioan

Martxoak 10, martitzena

17:00 Emakumeen IV. Climbing Party Girl eskalada-lehiaketa, Sakonetako boulder-en

Martxoak 11, eguztena

20:00 Mendi Tour zinemaldia (3 euro): *Mission Antarctic* eta *Drawn*, Kultur Leioan

Martxoak 12, eguena

20:00 *Climbing Far West* filma, Kultur Leioan

Martxoak 13, barikua

20:00 «Importancia de la nutrición en alta montaña» berbaldia, Kultur Leioan

Martxoak 15, domeka

8:00 Mendi irteera Coterora (Burgos)



Bilboko Mendifilm jaialdiko filmak herriz herri dabilta asteotan.

Miloi bat euroko laguntza emango die bertoko kirol taldeei Getxoko Udalak

Getxoko Udalak azken urteotako laguntzarik handiena emango die aurten bertoko kirol-taldeei: 1.018.000 euro. Udaleko beste zenbait arlotan ez bezala, kirol kontuek gorantza egin dute, Europako Kirol Hiri Onenaren izendapenak hauspotuta. Iaz, 860.000 euro banatu zizkien kirol elkartei; 2013an, hainbat murrizketa tartean, 770.240; eta 2012an, 835.000. Iragarritako bederatzirentzat laguntzetatik zortzi daborduko eskatu daitezke. Salbuespena da kirol-jarduera arruntetan euskara sustatzeko laguntza. Partida horrek 16.000 euro dauzka (20.000, 2012an), eta eskaera aurkezte-


ko maiatzaren 5era arte itxaron beharko da. Laguntza nagusiak honakoak dira: lehiaketako jarduerak eta errendimenduko kirolariak, 390.000 euro; oinarriko kirola garatzea, 223.000; ekitaldiak antolatzea, 183.000; Getxo markako kirol-ekipamendua erosteko laguntza berria, 1000.000; eta kirol-lehiaketetako finaletara sailkatze-gatik izandako gastuetarako, 41.000. Oso atzean daude muturreko kirola, 4.000 euro; herrietako eta auzoetako eta kirol-ekimenak, 2.000; eta hementeko kirola sustatzea, 1.000. Azkenik, 58.000 euroko finantziario gehigarria aurreikusi dute. ◀



Natxo Gonzalez Iglesias surflari plentziarra Islandian izan da, 25 gradu azpiko tenperaturan surfa egiten, eta *Light surf in Iceland* kirol-film laburrean eman du horren berri. Egunotan ere, Olatu Handien Munduko Tourrean bederatzigarren sailkatu da.

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.



			4					9
5	7			1		8		
		8	3		7			1
6			7			2		
	2	5						
3						5		4
8		1			6			
		4						3
9					4			

9	5	8		6				
1				3			4	
			7					
			2				1	
	8				6			
	2			7		6	5	
		6				7	3	
	7		9			8		
	9			8				5

		9		2			6	
6				1	4	8	5	
			6		8			
								6
		3		4		9		
				9		1	4	
	8						9	1
	3			8				
		5			2		8	

Soluzioak

8	1	9	3	2	5	4	6	7
6	2	7	9	1	4	8	5	3
3	5	4	6	7	8	2	1	9
9	4	8	2	5	1	7	3	6
1	7	3	8	4	6	9	2	5
5	6	2	7	9	3	1	4	8
2	8	6	4	3	7	5	9	1
4	3	1	5	8	9	6	7	2
7	9	5	1	6	2	3	8	4

9	8	7	4	3	1	2	5	6
3	2	1	8	6	5	7	9	4
5	6	4	9	7	2	1	3	8
4	1	5	2	9	6	7	8	3
7	9	6	3	4	8	5	1	2
8	3	2	1	5	7	4	9	6
1	5	1	2	3	2	3	8	4
2	4	2	8	1	9	3	6	5
7	9	5	3	7	9	2	1	6

5	2	1	7	8	9	4	6	3
4	6	4	8	3	1	6	2	5
9	3	7	3	4	2	5	9	8
8	5	9	6	7	3	1	2	4
3	6	2	9	1	4	6	5	7
1	7	4	1	7	8	5	2	6
6	8	6	1	5	7	9	3	4
1	6	7	8	3	5	9	4	2
9	5	8	4	6	2	3	7	1

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Euria, euria, euria. Guardasola etxean behingoz uzteko irrikan zaude. Bada, zortea izan duzu eguzkiak agertzeko hautua hartu baitu!



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Arrautza frijitzen jakiteak ez du esan gura kozinatzen dakizunik. Serio har ezazu kozinatzeo ikastaroren batean izen-ematearena.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Bileretara berandu heltzeagatik euro bateko isuna jartzea erabaki dute. Bada, joan aurretan, itsulapikoa beteko duzu-eta!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Opari bat egiteko dendaz denda zabiltza, baina ez duzu ezer aurkitzen. Zergatik ez eskuz egindako zerbait egin? Eskertuko dizute!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Mendira ez joateko aitzakiazat hartu duzu euria orain arte. Eguzkia atera da; beraz, joan zaitez mendiko botak prestatzen...



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lagunei pote-erronda bat ordainduko diezula agindu baino lehenago, ziurtatu diruz-orroan diru nahikoa duzula!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Eguraldi onaren seinale hartu duzu eguzkiaren bisita. Baina kontuz, horrek ez du esan gura hondartzara joateko sasoia denik!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Hainbeste ordu ikasten eman ostean, orain apurtxo bat gozatzeko garaia da... Datorrena datorrela, egindakoa eginda dago-eta!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Daborduko Aste Santuko oporrak dituzu buruan; zer egin, nora joan, nogaz... Oraindino, denbora dago, sakon hausnartu!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Azken boladako euriteen eraginez, gorputza zimeldu zaizula diozu; kontuz ibili, okerragoa da-eta burua ugerrez betetzen uztea!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Oporraldia noiz, zure burua orduantxe. Aitaren eguna duzu orain gogoan; aita izan ala ez izan, berdin ospatzeko asmoa daukazu!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Negua oraindino ez da joan; eta luze ala labur izan arren, zu alboan egotea ia beti da gozagarri! Partekatu zure irribarra gugaz!

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiaszgetaria.com



Gernika agentea

Urduliztik, espioi nazien sareak desegitera

Jose Laradogoitia Mentxaka urduliztarra garrantzi handiko espioia izan zen 40ko hamarkadan. Abwehr inteligentzia-zerbitzu alemanaren begietara plantak eginez, Eusko Jaurlaritza eta AEBentzat egin zuen lan.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Jose Laradogoitia Mentxaka (Laradogoitia, Laradogoitia edo Menchaca gisa ere agertzen da zenbait agiritan), 1912ko uztailaren 9an jaio zen Urdulizko Antongoena baserrian. Inork gutxik pentsatuko zuen orduan, gerra batean agente sekretua izango zenik, bikoitza, gainera; eta garrantzi handiko informazioa banatuko zuela, egiazkoa zein faltsua.

Laradogoitia familia bost seme eta alaba bakarraz Gatikako Butroera aldatu zen. 1930eko abenduan, Miguel Primo de Riveraren erregimena amaitu eta Berenguer jeneralaren diktadura bete-betean zegoela, Josek bizimodu onenik topatu ez, eta Ameriketara joan zen, Antonio eta Manuel anaiek aurretik egin zuten legez. Antoniok AEBetako Idaho estatuko Boise haranean *Gitano* ezizena zuen; artzaintzan, abeltzaintzan eta ostalaritzan jardun zuen. Euzko Alderdi Jeltzalearen inguruan ibili zen bien bitartean.

Joe Gezurrak deportatua izateko bidean

Josek, berriz, bestelako asmoak zituen bizitzan, eta jarduera mantsagoak landu zituen. Bertako euskaldunek *Joe Gezurrak* goitizenez bataiatu zuten, bere narrazio bitxiengatik. David Mota Zurdo historiagileak idatzitako *Jose Laradogoitia Menchaca, el agente Gernika* ikerketaren arabera, Jose «lanean seriotasun txikiko pertsona zen, eta neskazalea». Maulak

eta iruzurra egitera jo ei zuen. 1940ko urtarrilean, atxilo hartu eta Idahoko Mountain Home espetxera eroan zuten, funts bako 1.000 dolarreko zenbait txekere sinatzeagatik. Etorkina izanda, *Johnson-Reed Act* araua aplikatu ahal zitzaion; besteak beste, aipatutako delituengatik AEBetatik deportatzea ahalbide-

Hego Amerikako gutun zifratuak deszifratzen ibili zen Guardia Zibilaren Bilboko Salve kasernan

tzen zuen. AEBek Francoren erregimenaren esku utziko zuten Laradogoitia, Ramon Serrano Suñer faxista entzutetsuaren esku. Nahiz eta txikiak izan, EAJgaz zituen loturek urduliztarra etorkizun latz batera bidera zezaketen.

Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritza

Gerra Zibilean Euzko Jaurlaritzak Euskal Informazio Zerbitzua sortu zuen, *Zerbitzuak* izenagaz ezaguna. EAJko militanteek osatuta, armak eskuratu eta Gobernua Baionako delegazioagaz lotzeko xedea zuen hasieran. Erbesteko bidea hartuta, Baionatik Gober-

nua Euskal Herriko erresistentziagaz eta atxilotutako buruzagiakaz komunikatzera pasatu zen *Zerbitzuak*. Frantziak eta Erresuma Batuak Francoren aurka egin zezaketelakoan, estatu horien inteligentzia-zerbitzuak laguntzeari ere ekin zion, naziei buruzko informazioa emanez.

Zerbitzuak laster gurutzatuko zen Jose Laradogoitiaren bidean. Jon Bilbao Euzko Jaurlaritzaren Boiseko ordezkariak, Laradogoitiaren onerako, plangintza bat diseinatu zuen: fidantza ordaindu, *Igarobide* euskal pasaporte eman, bisa lortu eta Latinoamerikako edozein herrialdetara bidaltzea. Otsailean, Venezuelara bidaltzea proposatu zuen Manuel de la Sota Nueva Yorkeko delegatuak. Baina Caracasesgaz tramitazioa berandutu zen eta 1941eko azaroaren 6an Laradogoitia deportatu egin zuten.

Agirre lehendakaria eta Zerbitzuak

Bitartean, Alemaniako erasoak Frantziaren euskal erakunde guztiak ezustean harrapatu zituen, Jose Antonio Agirre lehendakaria barne. Alemaniatik barrena era klandestino eta arriskutsuan ibili ostean, Agirre AEBetara heldu zen 1941eko udan. *Zerbitzuak*-ek potentzia amerikarragaz bat egin zuen. Abenduan, Pearl Harborren aurkako Japoniarren erasoak zabaldu egin zuen AEBen eta Alemaniaren arteko gerra, eta, bide batez, estatubatuarrek Francoren aurka egingo zuteneko esperantza. Bide horretan, Jaurlaritzak Euskal Informazio Zerbitzuaren lanak eskaini zituen, Latinoamerikan japoniarren eta nazien eraginari amaiera emateko. Jose Laradogoitiaren zerbitzuak garrantzi handikoak izango ziren zeregin horretarako. Nahiz eta Francok bere burua neutralizat aurkeztu zuen, urduliztarrak Espainiaren eta III.



Laradagoitiak emandako informazioaz baliatuta, Emilio Ipes eta Pablo Mesa epaitu eta *USS South Dakota* japoniarren erasoetatik babestu zuten.

Reichen arteko loturak agerian uzten lagundu zuen, esaterako, alemanek Hego Amerikan zuten zenbait zelula desegiteko edota Euskal Herrian alderdi naziak zuten azpiegitura ezagutarazteko.

Laradagoitia, frankista

Jose Laradagoitia 1941eko azaroaren 6an deportatu zuten itsasontziz, AEBetatik, bere inguruan mugitzen zen sare politikoa ezagutu barik. Garai hartan, ohikoa zen AEB eta Espainiaren arteko merkataritza: Washingtongek Madril Berлиндik urrundu nahi zenez, lehengaiak edo petrolioa errazten zizkion Francori. Bitartean, Espainiak aukera ematen zuen Ameriketara zihoazen merkantzia-ontzietako eskifaietako informatzaile frankistek Hego Amerikako Alemania zale aginduak eramateko. Beste aldetik, itsasontzi horietako kapitan eta ofizial gehienak euskal herritarrak ziren eta askok Jaurlaritzarentzat lan egiten zuten. Inguruan nor zeukan jakin barik, Laradagoitiak karta frankista jokatu zuen, bizia salbatzeko esperantzaz. Bidaian Francoren Espainiak sortzen zion laguntasuna oso agerian utzi zuen. Bilbora heltzean, Valeriano Peña agente frankistak Laradagoitiaren leialtasunaz konbentzitu zituen poliziak, eta ezelako neurri barik libre utzi zuten. Urduliztarrak nazien kabia zen Bilboko Excelsior hotelean hartu zuten ostatu. Ailegatu bezain laster, Georg Helmut Lang Bizkaiko Inteligentzia Zerbitzu alemanaren buruzagia bertaratu zitzaion, nazien Polizia sekreturako Bilbon lan egiten has zedin proposatzeko. Lanek 60 agente zituen Bilbon eta zenbait itsasontzitan, Alemaniako Itsas Armadarako informazioa eskuratzeko, aliatuen konboiak sunsitzeko asmoz. Laradagoitiak proposamena onartu behar izan zuen.

Gernika agentea

Agente aleman legez, bere nagusiagaz Madrilerara joan zen Laradagoitia. Bertan, errekluta berriak prestatzen zituen Paul Winzerren esku gelditu zen. Laradagoitiari galdeketa sutsuak egin zizkieten 15 egunez; baita mezu enkriptatuak jaso eta zabaltzeko entrenatu ere. Ostean, Bilbora destinatu zuten.

AEBetan balizko misioaren bat egiteko trebatu zuten: armamentua, armada eta komunikazioak ardatz hartuta. Horren guztiaren ostean, gerra-izena eman zioten: Gernika. Handik aurrera, Hego Amerikako gutun zifratuak deszifratzen ibili zen Guardia Zibilaren Bilboko Salve kasernan. Behin bakarrik izan zuten informazio berezirik. AEBetako Itsas Armadak

Espioi alemanen gutunek jasotzaile bera zuten beti: Plentziako Andaluza guardia zibila

Atlantikoan zituen defentsa guztien berri izan zuen, baina lortu zuen eduki hori ezkutatzeko. Berarengan konfiantza osoa zutela eta, alemanek AEBetan misioak egitera bultzatu zuten. Hasteko, Carlton hotelean zegoen kontsul-etxe estatubatuarrean infiltratu zuten. 1942ko udan, berriz, *Aldecoa* itsasontzian sartu eta agiri faltsuak eman zizkieten, Brasilerara heltzean desertatu eta AEBetara joateko agindu zioten. Bertan beste agente alemanakaz batu behar zuten. Laradagoitiak Espainiako Errepublikako kontaktu batzuen bidez lortu zituen AEBetan sartzeko agiriak. Bere asmoa ez zen aginduak betetzea, AEBetako Es-

tatu Idazkaritzako agintariengana jo eta Espainiako ontzietan zebiltzan agente naziak salatzea baizik. Baina ezin izan zuen muga gainditu, agirien erruz.

Agente bikoitza

Garai hartan, Euzko Jaurlaritzak proposatu zion Mexikon errefuxiatzea, arriskurik ez hartzeko, baina *Zerbitzuek* eskatuta, kontraespioitzan behar egitea onartu zuen, Euzko Jaurlaritzak aliatuei informazioa helarazi ahal izateko. Ordurako espioi bikoitza zela, Espainian misioaren porrotaren berri eman eta agindu berriak ere eskatu zizkion Langi. Hego Amerikako agente-sarearen ardura hartzeko eskatu zioten.

Informazioa helarazteko, sareko espioi alemanek postari asko erabiltzen zuten; postariak eurek jakin barik zer zeramatzen. Gutunen jasotzailea beti bera zen: Plentziako Joaquin *Andaluza*. Ezizen horren atzean Joaquin Fernandez guardia zibila zegoen. Sare osoaz informazioa biltzen zuen bitartean, *Gernika*-k jarraitu zuen alemanen misioak onartzen, esaterako Ameriketara radio-emisioaren zelula bat muntatzea. Era berean, *South Dakota* itsasontzi estatubatuarra hondoratzeko japoniarrek asmatutako plana desegin zuen.

1943ko maiatzaren 17an, Laradagoitia Filadelfiara heldu, misioa laga eta Itsas Armadagaz harremanetan jarri zen. Hainbatetan itaundu ostean, eta Jaurlaritzari galdetu ondoren, estatubatuarrek sare alemana desegin zuten. 1945ean AEBetako egunkari denetan agertu zen epaiketa egin zen, Emilio Ipes eta Pablo Mesa espioi espainiarren aurka.

Horren ostean, Jose Laradagoitia bizitza publikotik desagertu zen. 2002ko abenduaren 11n hil zen eta Nueva Yorken lurperatuta dago, Sayville herrian. ◀



Mundukatuak

Jose Marcelo Ferrufino orurotarra

«Nire herriaz gehiago jakin izan dut hemendik»

Getxoko Itzubaltzeta / Romo auzoan bizi da Jose Marcelo Ferrufino, emaztea eta hiru seme-alabagaz. Lanean edo familiagaz ez dabilenean, arreta jartzen dio bere kuttunari: Boliviaren Aldeko Elkarte. Hainbat etorkin-elkartetan izana da, eta, folkloreak gainera, elkartasun-ekimenak ere bultzatzeko helburua izan du beti. Herriko jai-batzordeko kidea ere bada, Inauterietan zenbait elkar-egindako elkarlanak erakarrita.

Zer bisitatu

Oruron bigarren hezkuntza amaitu eta lanean jarri zen, 16 urteagaz, lehenengo semea mantentzeko. Bolivian zehar ibili zen, familiaz arduratzeko dirua lortzeko asmoz. Harro agertzen da bere herriaz: «Orurok leku asko ditu bisitatzeko, baina nik ez nuen izan ezagutzeko astirik. Gehiago jakin izan dut hemen nagoenetik». Ez

du arazorik, baina, gomendioak egiteko: «Orurok Aratusteetan du bisitari gehien. Bertako Inauteriak Gizateriaren Kultur Ondare Ez Materialtzat jo ditu Unescok». Hiritik kilometro batzuetara, itzalitako sumendietan, bai

« Oruroko Inauteriak Gizateriaren Kultur Ondare Ez Materiala dira »

nuetxeak daude, ur termalak hartzeko proposak. Antropologia Museoa ere ikustekoa ei da. Baina ez Uyuni gatzaga bezainbeste: hamar mila kilometro kuadroko basamortuan ekoizten dute bertako urre zuria. Konparazioa egiteko, Arabako Gesaltza Añana 500 aldiz txikiagoa da. Ostera, maldan behera doan arren, industriarean garrantzia

aldarrikatzen du Ferrufinok, Potosiko eta Oruroko meategiak Bolivia osorako euskarri zirenekoak gogoan.

Jan eta edan

Oruron jaki famatuak dira Uyuni inguruan bazkatzen diren arkumeen haragi gatzatua eta llamaren okela. Mendeetan, nekazariak besterik ez zuten gozatu. Llamaren okelak kolesterolik ez duela zabaldu zenetik, esportatzeari ere ekin diote, deshidratatuta eta osasun kontrol zorrotzen artean. Lehen, llamakiari mespretxurik egiten zionik bazegoen ere, gero eta gehiagok jaten dute. Gauzak horrela, dezente garestitu egin da. Ferrufino txikia zela, plaza edo parkeren bat inauguratzen zenean llamaren odolaz ingurua ziprztindu eta animalia kozinatu eta jaten zuten, errituala balitz legez. Amaitzeko, edateko, singani mahats-pattarra gomen datzen du. ◀

NOR DA

Nongoa

Oruro (Bolivia)

Adina

35 urte

Zertan dabil

Lorezaintzan jardun du; orain, langabezia

Ikasketak

Bigarren hezkuntza egin zuen.

Noiztik Euskal Herrian

2005ean heldu ziren bera eta semea, Getxon bakarrik zegoen bere emazteagaz batzeko. Lanaz gain kulturgintzan murgildu da. Orain Boliviaren Aldeko Elkartearen dabil.

NONGOA DA



Lurraldea

Bolivia

Azalera

1.098.580 km² (52 aldiz Euskal Herria)

Ingurunea

Cercado lurraldea, Oruroko departamenduan

Biztanleria

265.000

Hizkuntzak

Uru eta chipaj tago dira jatorrizko hizkuntzak. 2008ko Konstituzioak «jatorrizko nazio eta nekazari indigenen» hizkuntza ofizialtzat jotzen ditu. Halere, 2.000. urtean uruk hiztun bi bakarrik zituen, eta chipaj tagok, bi mila. Haatik, aimara darabilte gehien bat bertakoek, «kanpotartzat» jotzen duten kitxuagaz batera. Biak ikasgaiak dira eskoletan. Espainola da jaun eta jabe

Dirua

Boliviano

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus
Posta Kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Inigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Publizitatea: Erika Martinez
Kudeaketa: Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak:

